

5

Iparralde

Euskararen egoera larria Iparraldeko administrazioetan: garai hobeen ustetan.

9

Pello Esnal

Deszifratzaile-itzul-tzaileen kontuak eta komeriak eskribau ilunen aurrean.

22

HAEE Internet-en

Gonbidatuta zaudete gure helbide berrira: www.ivap.es.

Erakunde Administrazioa



Euskalan elkarteak lantokietara eramana nahi du euskara

Hamar bat urtez, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko (AED) Euskalan taldea euskara eta lan-arloa uztartzen ahalegindu da. Aurtten, Deba Garaiko hainbat kooperatibatako eta enpresatako euskaltzaleak bildu dira, eta *Euskalan* elkarte sortu dute. Elkarte berriaren helburu orokorrak aurrekoari eusten dio: euskara, ahozkoa zein idatzizkoa, lantokietara zabaltzea. Hala ere, *Euskalan* ez da dagoeneko AEDko talde bat; bere jarduna ez da Arrasatera mugatzen, bailara osora hedatzen baita, ordea. Bestalde, *Euskalane*koek argi utzi nahi dute, orain arte ezer gutxi egin izan arren, aurtengo honako helburu hauek jarri dizkiotela bere buruari: 15 euskara-batzorde osatzea, 10 enpresatan euskararen erabilera areagotzeko planak garatzea, eta helburuak lortzeko baliabideak aurkitzea.

13. orr.

Pedro Miguel Etxenike: "Burokrazia sormenaren etsai amorratua da"



Pedro Miguel Etxenikerekin hizketan egitea gozo eta atsegirik hartzeko bide zuzen eta segurua da. Garai batean Hezkuntza eta Kulturako sailburu lanetan aritu ondoren, une honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna da; eta oraintsuago, Ikerkuntzarako Euskadi saria irabazi du. Bere ustez, euskal unibertsitatean aurrerapen zientifiko nabarmena izan bada ere, "oraindik asko hobetu beharrean gaude". Horretarako, "unibertsitateak tratu berezia eman behar dio lan berezia egiten duenari". Etxenike jaunak, hauek gain, beste gai interesgarri batzuk ekarri dizkigu orrialdeotara: ikerketei eman beharreko bultzada, kritiken alderdi onak eta txarrak, ingelesaren eta euskararen tokia, Euskararen Legearen garapena, eta beste.

10. orr.

Aratu behar al dute administrazioek langile publikoen euskararen erabilera?

Azaroaren 15ean, erabateko adostasunik izan ez bazen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak Administrazio Publikoetako Euskararen Normalkuntzarako Planaren Bigarren Plangintzaldiaren oinarriak onartu zituen. Lehen plangintzaldian, langileak euskalduntzeari eman zitzaion lehentasuna; oraingoan, berriz, euskararen erabilera administrazio guztietara zabaltzea da helburu nagusia. Hori gauzatzeko orduan, galdera batzuk datozkigu burura: administrazio bakoitzak agindu behar al die bere langileei zein hizkuntzatan jardun? Langileen esku egon beharko luke lan-hizkuntza aukeratzea. Zerbaki honetako eztabaidan Mikel Illarregi, Olatz Osa, Arantxa Aurrekoetxea, Iñaki Agirreazkuenaga, Maitena Etxebarria, Javier Moraza eta Maria del Mar Zabala izan ditugu solaskide. Adi beren erantzunei.

20. orr.





Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinu Grafikoa: Gabinorte

Zehazki honetako lanbideak:
Sebas Agirre, Xaxildo Alkorta, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Pello Esnal, Edorta España, Roberto Garay, Enrike Gorrotxategi, Mixel Kaltzakorta, Joseba Lozano, Luma, Iñaki Mendiguren, Xabier Mendiguren, Josu Perales

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argitaratutako artikuluak berriro idatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritzirik.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Legezko Gordailua: BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Adriano VI, 20. 01008 VITORIA-GASTEIZ. Tlf. 18 76 00. Faxa: 18 76 02.

PERTSONAIA



Natxo de Felipe, Oskorriko kidea: "Euskal Herrian polemistak behar ditugu"

Dabilenak soilik daki zer gordetzen duen bideak. Natxo de Felipek, Oskorri taldeko kidea, bide luzea egin du dagoeneko euskal musikan. Orain 25 urte ekin zion ibiltzeari Deustun, eta joan den irailean Getxora heldu zen atzera begiratzeko asmotan. Egun, berriz, kantetan darrai, bidea abesten egiten baita musikan.

Zer dakarkizu gogora Getxoko kontzertuak?

Lehenik eta behin, euskal jendea oso esker onakoa dela gurekin. 25 urteotan oso jarraitzaile leial eta zintzoak izan ditugu, eta han topatu genuen giroa oso berezia izan zen.

Zertan ote euskal musika Oskorririk gabe?

Egin duguna egin izan ez bagenu, beste norbaitek egingo zukeen, beste modu batera edo. Euskal musikan asko ikasi dugu gure aurrekoengandik, eta badakigu gure ondoren etorri diren beste batzuek, neurri batean edo bestean, zeezer ikasi dutela guregandik.

Zer ekarri dio Oskorriko paisaia musikari?

Ikuspegi berezi bat beharbada, besteek bezalaxe. Ispilu bat puskatuz gero, mila puska egiten da. Gu puska baten jabe gara euskal musikan.

Nor da Natxo de Felipe Oskorri taldean?

Nik taldea sortu, eta, Arestirekin batera, lehen errepertorioa egin nuen. Baina hori aspaldiko kontua da. Taldean bakoitzak ahalmen diferentek ditu, baina inor ez da besteak baino gehiago.

Nor da ezagunagoa Hegoaldean, Chiquito de la Calzada ala Oskorri taldea?

Chiquito de la Calzada!

Zer esan gura du horrek?

Gaur egun hedabide batzuek indar ikaragarria dute. Telebistan agertzen dena bada; eta telebistan agertzen ez dena, berriz, neurri batean behinik behin, ez da. Baina nahiz eta Chiquito oso ezaguna izan, jende askori ez zaio interesatzen.

Euskararen Aholku Batzordean zaude. Zein aholku emango zenuke?

Kideak hautatzerakoan oso aukera zabala egin dute, oraingo honetan behintzat. Hurrengo urteetan euskararen abileria areagotu nahi da. Hori lortzeko, nire ustez, protagonismo handiagoa eman behar zaio jendeari. Euskara kontuetan

militantzia puntu bat behar da, eta, horretarako, jende asko dago prest toki guztietan.

Euskal Herrian euskaraz hitz egiterik ez bada, bota dezagun demokrazia zerri askara. Ba al gaude horren premian? Agian Iparraldean?

Demokraziak tranpa ugari daramatza aldean. Gehiengoaren agintepean diktadura egoera batzuk gerta daitezke gutxiengoarentzat. Euskara defenditzea geure eskubidea ezezik, betebeharra ere bada, eta defenditu egin behar dugu. Hala ere, badirudi azken urteetan, oro har, aurrerapausok egin direla.

Goiz gorri, haize eta euri, diote Nafarroa aldean. Zer ekarriko du goizak 25 urte barru?

Hobe jakitea zer ekarriko duen datozen hilabeteotan.

Hamasei disko atera dituzue. Zein duzu gogokoena? Zergatik?

Batek daki! Azkenak, esaterako, ahaleginik handiena eskatu digu. Dena den, disko bakoitzak bere historia dauka, eta bere istorioak gorde ditu.

Ba al gaude Aresti baten beharrean?

Aresti oso gizon eztabaidatua izan zen. Literatur balioa izateaz gain, kulturaren bultzagile aparta izan zen. Askotan ez gara ausartzen gauzak gordin-gordin esatera; Arestik, ordea, ez zion beldurrik horri, eta polemika handiak sortzen zituen. Agian, polemistak behar ditugu. Gaur egun badira oso polemika interesgarriak sortarazten dituztenak (Patziku Perurena, kasu), noski; baina Euskal Herrian, oro har, beldur handia diogu polemikari, eta hori oso nabarmena da kritikan.

Badok Hamahiru ala Ez Dok Hamahiru?

San Martinek ez dok hamahiru esaten zuen eta Deabruak, aldiz, badok hamahiru. Gure ustez, Deabrua zebilen zuzen.

Idazkari-kontuhartzaile baten burukominak

Indarrean dagoen legediak B taldean sailkatzen gaitu eta honi buruz nire iritzia, eta agian beste zenbait lankiderena ere bai, azaldu eta argudiatu nahi nuke ondoko lerro hauetan.

Bost mila biztanletik gorako udalerrri guztiek Estatu-mailako gaitasuna duten bi lanpostu desberdin daukate eta bakoitza A taldean sailkatua dago. Alde batetik Udaleko Idazkaritza zuzentzen duena, idazkaria, alegia; eta bestetik Udal baliabide ekonomikoaren kudeaketaren arduraduna, hots, kontuhartzailea. Bien egin-beharrak legeak finkatzen eta arautzen ditu eta ez da jakitun izan behar biak oso desberdinak direla esateko.

Idazkariaren eginkizuna zuzenbidearen arloan murgiltzen da bete-betean. Kontuhartzailearenak, aldiz, ekonomia-eremuan trebatua izatea eskatzen du.

Bada, bost mila biztanletik beherako udaletan, hain ezaupide ezberdin eskatzen dituzten bi lanpostu hauekin bakarria egiten da: idazkari-kontuhartzailearena hain zuzen. Eta horrela, legediaren agintzapean, berdin eskatzen zaigu derrigorrezko desjabetza edo ekitaldi ekonomikoaren balantzea bideratzea; higiezin baten salerosketa nahiz aurrekontuaren kreditu aldaketa martxan jartzea; udalbatzararentzako txosten juridikoak idatzi zein kontabilitate analitikoak aztertu; fede publikoan eta legearen aholkularitzan ihardutea edo udal-zerbitzuei dagozkien zuzeneko eta zeharkako kostu errealeak ondorioztatzea...

Gainera, udalerrri txiki edo handia izan, kontabilitate arloan salbu, espedienteak berberak dira, adibidez, eraikin baten aurri-adierazpenak zailtasun bera du udal txiki edo handi batean. Are gehiago esango nuke, udal handietan askoz laguntza tekniko gehiago daukate bai lana banatzeko, iritziak konparatu eta egiaztatzeko edo erantzukizuna zabaltzeko.

Udal txikietan hauetako espediente batzuk oso aldika sortu ohi direla pentsa dezake norbaitek, baina, bakantasan hau bera, ez al da desabantaila bat gehiago? Bestalde, zenbaitetan egoera bixiak sortarazten ditu arazo honek: guk B mailakoak izanik, A

mailako arkitekturen edo goi mailako teknikoaren lanak zuzendu eta bideratu behar izatea, adibidez.

Arazo honek eragin desberdinak ditu guregan. Alde batetik, eragin ekonomikoak daude, gure soldataren kopurua sailkapen taulak finkatzen baititu eta sailkapen taulak mailekin zerikusi handia du. Hala eta guztiz ere ekonomikoa ez da arazo larriena, zeren eta bai ordainketa osagarriekin bai mailen bitartekin erraz zuzendu baitezakegu. Bestetik, eragin funtzionalak dira, hots, lekuz aldatzeari dagozkionak. Egun, B taldeko funtzionariok ezin dugu B taldeko lanpostuetara besterik lekuz aldatzea eskatu, ezta gehienok lizentziatuak izanik ere. Dena den, arazo ekonomikoa edo funtzionala baino, justizi kontua dela iruditzen zait. Udal-idazkaria orokortasunaren espezialista dela esan ohi baita, zer ote gara gu? Edo, udal txikiak Bigarren mailako Administrazio Publikoa ote?

Ramon Kanpandegi

Berrobiko idazkari-kontuhartzailea

Iparraldea

Beste ezer baino lehen, aldizkari honetan jorratutako gaiak orokorrean oso interesgarriak iruditzen zaizkidala adierazi nahi dut. Administrazioarako itzultzen ari garenontzat lagungarri gertatzen dira bai aldizkari hau, bai eta itzulpenari buruzko IVAPen argitalpenak. Hala eta guztiz ere, *Administrazioa Euskaraz* aldizkari honetan hutsune bat topatzen dut; Iparraldeko berri, hain zuzen ere. Itzultzeko teknikak, trikimailuak eta esamoldeak azaltzerakoan gaztelera da oinarritzat hartzen den hizkuntza, eta ez da frantseseko aipamenik egiten. Mesedegarria litzatekeela iruditzen zait aldizkarian Iparraldeko itzultzaileen edo zinegotzi, alkate, funtzionario eta orokorrean administrazioarekin zerikusirik dutenen berri jasotzea; beste aldean ezer itzultzen ote den, administrazioan euskara erabiltzen ote duten, erabil dezaketen, guk darabilgun euskara baliagarria iruditzen ote zaien, etab.

A. Lete
Itzultzailea

JOXERRA INTERINEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, mahitaz, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi behariko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahaliko du sail honetan bertan.

Euskara frantses administrazioetan



Frantziako legedia

Hizkuntza frantsesaren erabilpenari buruzko lege bat bozkatu da Frantziako lege biltzarrean eta senatuan, 1994ko agorrilaren 4an. Horren lehen artikulua dio:

- frantsesa, Konstituzioaren arabera Errepublikaren hizkuntza dela, eta Frantziaren nortasun eta ondarearen oinarritzko elementua;
- erakaskuntzako, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza dela;
- lotura lehena dela frankofoniaren partaideak diren estatuaren artean.

Bizkitartean, legearen 24 artikuluen artean, bi badaude Frantziako "eskualdeetako" hizkuntzak aipatzen dituztenak:

11. I. artikulua: Eskola publikoetan eta pribatuetan, erakaskuntzako, azterketako, oposaketako, bai eta tesiako eta tesinako hizkuntza, frantsesa da, salbu "eskualdeetako" edo herbesteko hizkuntzaren eta kulturaren erakasteko beharrak manaturik, edo erakasleak herbesteko partaideak edo gomituak direlarik.

21. artikulua: Lege horren edukia ez da gauzatzen Frantziako "eskualdeetako" hizkuntzei doazkien legedia eta araudiaren kaltetan, eta ez doa horien erabileraren aurka.

Ipar Euskal Herriko egoera

Administrazio maila hurbilena, herriko etxea da. Ipar Euskal Herrian dauden 158 herrietarik, zenbaitetan (kopuru zehatzik ez daukagu) euskarari sarbidea eman diote:

- Idatziz:
 - herriaren izena, euskaraz ere (hiruetarik bik, nonbait han);
 - herriaren izena euskaraz ere udaleko paperean (bakar batzuk, bereziki Lapurdin);
 - barne seinalakuntza, herriko karrketan (batzuk, bereziki Lapurdin).

Bestalde, kanpotik eskaintzen zaizkien paper edo hitzarmen elebidunak onartzeko joera daukate. Adibidez, berriki, Eusko Ikaskuntzarekin izenpetu hitzarmena, bi hizkuntzetan (Sara, Azkaine, Donibane-Lohizune, Baiona eta Barkoxe herrietan).

- Ahoz:
 - Ezkontzako akta, euskaraz egiten da ahoz, hainbat herritan, ez-kongaiek hala nahi izanez geroz baina idatzizkoa, erran nahi baita izenpetzen dena, frantsesez baizik ez da emana.

Bestalde, herri tipietan bereziki, barne aldean, herriko etxeko idazkaria maiz euskalduna izanki, herriko jendeekin (adineko jendearekin oroz gainetik) euskaraz mintzo da komunzki. Baina inprimaki guziak frantsesez baizik ez dira egiten.

Bide seinaleak

Gaur egun, Iparraldean, euskararen idatzizko erabilpena sail publikoan, bide seinaleetan mugatzen da:

- herrien mailan (ikus gorago);
- departamenduaren agintepean diren bideseinale berrietan —baina ez sistematikoki denetan—. Gaur egun, sare hori frango mugatua da oraindik;
- Ipar Euskal Herria zeharkatzen duen bide nazional bakarrean, doi-doi abiatua da bideseinale elebidunen ezartzea (adibidez: Urruñan eta Biarritzen).

Euskararen presentzia
Ipar Euskal Herriko
administrazioetan
salbuespena baizik ez da

Oro har, hizkuntza gutituen aldeko politikarik ez du Frantziak, lehen-lehenik, aldeko legerik ez baitu oraindik eginik. Ondorioz, ohargarri da euskararen presentzia Ipar Euskal Herriko administrazioetan salbuespena baizik ez dela. Hala ere, euskararendako atxikimendua azkartzen ari da Ipar Euskal Herrian, berant bada berant, eta orduan pentsa genezake emendatuz joan dela euskararen erabilpena frantses administrazioetan, sail pribatuan bezala. Agian, denbora guti barne sortu beharra den Euskararen kontseiluak (Euskal Herriko Garapen kontseiluaren eskemaren ildotik) egoera aztertu ondoan, bideak urratuko ditu, euskararen

erabilpena administrazioetan heda dadin, idatziz, ahoz, bai barne aldeko herri tipietan, bai kostaldea hirietan.

P.X. - A.D.

Jaurlaritzaren dekretua eta lege-egitasmoa

Nondik-norakoak

Lege-egitasmoa Legebiltzarrari aurkezten zaion idazkia da, eztabaidatu, eta, hala badagokio, aldeko botoa eman ondoren, lege bihur daitekeena. Dekretuak, berriz, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiak dira, eta, beti ere, legeak baino maila txikiagoko xedapen orokorrak biltzen dituzte.

Idazteko irizpideak

Aginduari eta erabakiari buruz aurreko zenbakian esandakoek dekretu eta lege-egitasmoetarako ere balio dute; hau da, herritarrengandik hurbilago dagoen eta eztabaida eta zalantzarako bide gutxiago ematen duen lege-hizkera sortu nahi badugu, testu argiak, zehatzak eta ongi egituratuak idatzi behar ditugu.

Osagaiak

Izenburua

Idazki hauen izenburuak laburra, zehatza eta eduki osoaren berri emateko modukoa izan behar du. Lege-egitasmoetan ondorengo datuok jaso behar dira: xedapen-mota (kasu honetan **LEGE EGITASMOA**) eta egitasmoaren edukia edo helburua.

Dekretuetan, adierazitakoez gain, erreferentzia-zenbakia eta onarpen-eguna ere idazten dira. Adibidez:

7/1994 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako "Ariznabarra" ikastetxe publikoa sortzeko.

Garbi ageri denez, bi idazki-mota hauen izenburuan ez da aipatzen nor eman dituen.

Azalpen-zatia

Lege-egitasmoetan *Zioen Adierazpenaz* ematen zaio hasiera azalpenari. Zati honetan honako hauek jaso daitezke: legea egiteko arrazoiak, helburuak, lege-oinarriak, legea arautzeko jokabideak, e.a. Zioen adierazpenak lege osoaren laburpena izan behar du.

Dekretuetan, berriz, ez dago zioen adierazpenik. Azalpenean testuaren helburuak, oinarriak eta irizpideak aipatzen dira labur-labur. Zati hau ondorengo formulaz amaitzen da:

Ondorioz, (sailburua)...(r)en proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak... (data) ...(e)an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Xedapen-zatia

Bertan, dekretua eta lege-egitasmoa osatzen dituzten xedapenak jasotzen dira atalka eta hurrenkera logikoan (arau orokorrak, abstraktuak, arruntak eta behin-betikoak, lehenik; arau bereziak, zehatzak, teknikoak eta behin-behinekoak, ondoren).

Atal bakoitzari izena jartzea komeni da. Horretan, batasun-irizpide honi jarraitu behar zaio: atal guztietan jarri edo inon ere ez. Atalak lerroalde laburretan garatuko ditugu, eta beti, ondorengoari lotuz: atal bakoitzak, gai bat; lerroalde bakoitzak, ideia bat.

Batzuetan, dekretuak eta lege-egitasmoak luzatu egiten dira, eta atal ugari izaten dute; hori gertatzen denean, atalak multzo handiagotan bil daitezke:

- Atalburuak.
- Sekzioak.
- Idazpuruak.
- Liburuak.

Herritarrengandik hurbilago dauden eta zalantzarako bide gutxiago ematen duten dekretu eta lege-egitasmoak idatzi behar ditugu

Azken zatia

Atal honetan lau xedapen hauek, honako hurrenkerari jarraiki, sar daitezke:

- Xedapen gehigarriak.
- Aldibaterako xedapenak.
- Indargabetzeko xedapenak.
- Azken xedapenak.

Xedapen horien ondoren, toki-egunak, lehendakariaren izena, eta dekretua eman duen sailburuaren edo sailburuen izenak adierazten dira. Lege-egitasmoetan, aldiz, ez da horrelakorik jarri behar.

Amaitzeko, gogoan izan, argibide gehiago eman nahi izanez gero, eraskinak erabil ditzakegula.

Joseba Lozano

HAEeko administrazioko hizkeraren arduraduna

B inprimakia bete behar duzu


Ez dakit funtzionarioek patroirik ba ote duten santutegian, beste ogibide askoren antzera. San Mateo izan liteke behar bada, zergabiltzaile izan zen aldetik. Dena den, santu patroirik ezean ere, arte-lan bikainak dituzte funtzionarioek, literaturan eta zineman batik bat, beren lanbidea mintzagaitzat hartzen dutenak, dela aztertzeke, dela kritikatzeko, dela trufatzeko, Maitasun gutxi izan baitiete artista gehienek funtzionarioei, Inbidia hutsa, seguru asko.

Literaturako obra horien guztien artean bat bereizi beharko banu, Nikolai Gogol errusiarraren *Sudurra* aipatuko nuke, benetako maiulan bat, neurritz txikia baina balizko interpretazio eta irakurraldian ondo luzea. Euskaraz ere bitzulpen izan ditu, obraren arrakastaren eta gure letren aurrerapenaren erakusgarri: bata Pablo Sastrek egina orain dela hamar bat urte, eta bestea nire izenki-de Xabier Mendiguren Bereziartuk, berrikiago.

Izango dira istorioa ezagutzen ez dutenak eta nondik norako nagusia kontatuko dizuet, laburki: Kovaliov deritzan aholkari kolegiatu bat, sudurra falta zaiola ohartzen da goiz batean, eta zoro moduan ibiliko da San Petersburgoko bulegoetan gora eta behera, batetik bestera, bere sudur lotsagabe horren bila. Simplea da kontaketa-haria, baina ez inola ere sinplekeria: ironia zirikatzailea darabil, eritmo bizia, eta gizarte-ko itxurakerien satura zorrotza, besteak beste. Fantasia eta errealtatea horren modu naturalean nahasteak ematen dio ipuinari berez duen indarra: sudurra galtzea eta honen bila egin ahala guztian ibiltzea ekintza absurduak dira izatez, baina xehetasun guztiekin kontatzean sinesgarritasunaren efektua lortzen du Gogolek, gero Kafkak egingo zuen bezala. Kovaliov gaixoa guztiz serio ibiliko da bulego bulego, formalismo eta formulismo zentzugabe bezain sinesgaitzekin topo eginez aldiro. Azken finean, sudur galtze eta bilatze zoro horren bitartez burokraziaren beraren absurdua geratzen da agerian.

Baliteke honezkero baten bat minduta egotea, administraziooko langile zerbitzalen kontra ari naizela-eta; besteren batek erantzungo dit, horiek denak aspaldiko kontuak direla, eta urruti-koak, Errusia oso urruti baitago, eta gauza jakina baita han gauzak oso txarto egiten dituztena. Bai, noski, arrazoi du hori dioenak, eta erantsiko nuke topiko ere bihurtu dela errusiar eta sobietarren burokrazia kaotikoarena, horra hor, esaterako, Nikita Mikhalkov-en *Begi beltzak* filme ederra, Mastroiani krepuskular baina hunkigarri batekin.

Hala ere, burokratismoaren ajeak ez dira guztiz desagertu, tamalez. Ez ditut nik ukatuko helburu horrekin egindako ahalgin txalagarriak baina, zuztar luzeko belarra da nonbait eta ezin ba erraz erauzi. Niri gertatutako pasadizo bat kontatuko dizuet, eta inor ez mintzeko berehala argituko dut, Euskal Herriko administrazioek ez dutela inolako zerikusirik honako xebebrekeria honekin.



Lehenik esan dezadan nik argitaletxe batean egiten dudala lan, Elkar-en. Gure bilduma baterako begiz jota geneukan liburu galiziar bat, Xabier P. Docamporen *Cando petan na porta pola note*. Horretan ginela, jakin genuen Galiziako administrazioak, hemengoak ez bezala, diruz laguntzen dituela bertako literatura

kanpora esportatzeko proiektuak. Horrenbestez, hango argitaletxe bateko ezagunei eskatu eta laguntzen deialdia egiten zuen boletina bidali ziguten, faxez. Biharamunean bertan bukatzen zen eskariak egiteko epea baina, kontratuak-eta lehendik eskatuak genituenez, garaiz iritsi ginen, zalapartaka ibili arren. Handik egun batzuetara, Xuntatik deia, zerbait gaizki egin genuela-eta. Ez da harritzeko ere, esan nuen nire artean. Hala ere, ondo omen zegoen dokumentazioa. "Formulario okerra bete duzue", esan zidan funtzionarioak. "A inprimakia bete duzue, liburuak gailegora itzultzeko laguntzena, eta zuek B inprimakia

bete behar zenuten, gailegotik beste hizkuntzara itzultzekoa". A izeneko hori bakarrik genuela azaldu nion, baina zorionez gure hutsak ez zuen eskabidea atzera botatzen; funtzionarioak berak bidaliko omen zidan B inprimakia, atzera bete genezan. B inprimakia jaso nuenean, hura bete aurretik guk geneukan A-rekin konparatu nuen eta diferentzia bakarra zuten biek: batean A ipintzen zuen goian, bestean B. Gainerakoan, luzeak izan arren, berdin-berdinak ziren.

Liburu horrek Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen gero, 1995ean, eta euskaraz Koldo Izagirrek itzultza irakur liteke orain, *Gauzez ate joka datozean* izenburupean.

Dena dela, Galizia ere urruti dago, eta han, badakizu, *meigak* eta...

Xabier Mendiguren Elizegi
Idazlea

Gipuzkoan euskararen erabilera sustatzeko planak

Gipuzkoan euskararen erabilera sustatzeko abian jarri den egitasmoa hiru esparrutara zuzenduta dago: udal-administrazioko zerbitzuetara, merkataritza alorrera, eta kirolera. Lehendabizi, herrietako erabilpen plangintzak aztertuko dira, behin aztertu ondoren emaitzen arabera lan-mahaiak osatzeko. Lan-mahai horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko, udaletako edo erakundeetako ordezkariak osatuko dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara departamentua arduratuko da koordinazioaz. Horretarako, departamentu horrek lan-mahaiak egingako proposamenak bideratu eta sustatuko ditu, ideia edo iradokizun berriak proposatuko, eta hiru arlo horiek lantzeak lurraldeko erakunde eta egituretan izan dezakeen eragina zehaztuko du.

Ertzaintza euskalduntzeko plana

Dagoeneko martxan da Ertzaintza euskalduntzeko plana. Ertzainek bigarren hizkuntza eskakizuna lortu beharko dute, eta helburu hori betetzeko asmotan ia 300 ertzain ari dira lehen ikastaroan Arkauteko Polizi Ikastegian. Lehen plan honetan bi



Mundua on line

Herritarren partehartze politikoa

<http://www.reno.gov>

Renoko (elur-orein, *rangifer tarandus*) Udalak zenbait bide eskaintzen dizkie bere 160.000 herritarrei udal gobernuaren kudeaketan parte hartzeko. Ondorioz, basamortuko haran altu hartan bizi direnek, udal bileretan eta bista publikoetan beraien ideiak eta nahiak adierazteko aukera izateaz gain, udalean osatzen diren mahai, batzorde eta elkarteetan esku hartzeko eska dezakete.

Internet-eko helbide honetan batzorde horien guztien zerrenda dator, eta talde bakoitzaren nondik-norakoak azaltzen dira. Ideia orokorra jaso ondoren, herritarrek zuzenean izan dezakete sarbidea, *on line*, sarearen bidez.

Nevadako (elurte) hiriburua den Renoko talde hauek udal administrazioko eremu guztietan daukate zerikusia eta eragina (aireportuko zarata, abereen kontrola, osasuna, parkeak, bizikletaren kontseilua, emakumearen egoera, ingurugiroa, e.a.). Esate baterako, funtzio publikoko batzordeak funtzionarioen hautaketaren, izendapenaren eta sustapenaren fase guztietan dauka aginpidea. Eta batzorde horrek langileentzako apelazio-epaimahai gisa ere lan egin dezake, kargua kendu, kalera bota, lana eta soldatarik gabe geratu edo diziplinazko bestelako arazoak gertatzen direnean.

Luis Elizondo

maila bereizi dira: kalean herritarrekin hitz egiteko eta barne tramiteak idazteko gai izango direnak; eta, bestalde, lan teknikoagoak egin beharko dituztenak. 2.000 ertzainek egin dute eskaera euskalduntze egitasmoan parte hartzeko; hori dela eta, datozen hiru urteetarako plazak beteta daude. Herrizaingo Sailak guztiz liberatuko ditu euskara ikasten arituko diren ertzainak, eta sailburuak adierazi duenez, 2008. urterako herritarrek ertzainekin euskaraz zein gazteleraz aritzeko modua izatea da planaren helburua.

Euskara eta Internet

Euskara ere ari da bere bidea egiten teknologia berrietan, eta horren adibide dugu Interneten nabigatzeko programa euskaraz. Zuek ere araka ditzakezue munduko bazter guztiak, euskara duzuela lagun, programa honi esker. UZEI izan da Microsoft enpresaren Internet Explorer 3.0 programaren euskaratzaileria. Programa doan eskura dezakezue Microsoften gunera jota, edo baita ere ofiziala ez den Egunkariaren gunearen bidez. Hona Microsoften helbidea:

Microsoft Internet Explorer 3.0 euskaraz
http://www.microsoft.com/ie/ie_intl/eu/

Durangoko XXXI. liburu eta disko azoka

Abenduaren 5etik 8ra bitartean Durangon egin den liburu eta disko azokan berri ugari izan da: alde batetik, azokak plazako ohiko tokia utzi, eta hiru aldiz handiago den karpa erraldoi batean jarri dira salmenta tokiak, orain arte izandako leku arazoak arintze aldera; bestetik, eta liburu berriei dagokienez, ugariak baino ugariagoak izan dira aurtengo azokan eleberriak, ipuinak, haur eta gazteentzako literatur lanak, eta itzulpenak. Jende asko bildu duen edizio honetan liburu zaharren erakusketa interesgarria ikusteko parada ere izan dugu. Nobedadeen artean aipatzekoa da 3000 Hiztegia CD-Romean salgai jarri dutela Bostak Bat taldekoek. CD-Romak, 3000 Hiztegia edukitzeaz gain, 1.500 irudi eta 50 bideo ere baditu.

Politikoei euskara gutxi egiten dute herritarren ustez

EKBk jakitera eman duen azken inkestak dioenez, euskal herritarren %73k uste du euskal politikoei gutxi erabiltzen dutela euskara. Bide beretik, herritarren %90 politikoei euskalduntzearen alde azaldu dira. Gainera, eta jendearen iritziz, politikoei euskaldunek askoz ere gehiago mintzatu beharko lukete euskaraz. Aipagarria da, baita ere, gizarte-talde guztiak ia bat datozela inkestari erantzuterakoan; soilik nazio-sentimenduz espainol sentitzen direnek (%63) ez dute uste politikoei euskaldunek euskara gutxi erabiltzen dutenik. EKBk, bere aldetik, berriz ere gogora ekarri du iaz egindako proposamena politikan euskara gehiago erabili eta indar handiagoa izateko; eta proposamen horrekin bat egin dute politikoei eta kargu publiko izandako batzuek, besteak beste. Ramon Labaienek, Txillardegik eta Pedro Miguel Etxenik.

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian, hamar eguneko tar-tearekin edo. Biak Joxe Ramon Zubimendi adiskideak bidali zizkidan.

Gaztelaniaz zegoen lehenengoa, eta alkate euskaldun batek izenpetutakoa omen. Baina mozorrotuta zekartzan alkatearen izen-deiturak, herriarena eta baserriarena. Joxe Ramonek berak mozorrotu zituen, eta ez naiz ni hemen mozorroak kentzen hasiko. Oraingo, behintzat.

Besterik gabe, hona hemen gutuna. Hauxe izenpetu zuen alkate euskaldun eta abertzaleak, lehen aipatutako aldaketak salbu: herriaren ezizena (Auskalo) eta baserriarena (Halako).

Auskaloko Udala

A la vista de la solicitud de fecha 10 de enero pasado formulada por esta Alcaldía, en nombre y representación del Ayuntamiento de Auskalo, a los efectos de que desde esa Asociación de Agricultura de Montaña se sirvan disponer lo necesario para acometer a lo largo del presente año 1996 el Proyecto de "Arreglo y mejora del camino de acceso al C° Halako de Auskalo", consistente en la realización de un escollerao y posterior pavimentación del camino en un tramo aproximado de 250 metros y presupuesto de 2.750.000,- pesetas, esta Alcaldía, en nombre y representación del Ayuntamiento de Auskalo, en el ejercicio del derecho de desistimiento establecido en el artículo 90 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y con los efectos señalados en el artículo 91 de la citada Ley, tiene a bien comunicar a esa Asociación mediante el presente escrito que el Ayuntamiento de Auskalo DESISTE de su solicitud de subvención para financiar el Proyecto de "Arreglo y mejora del camino de acceso al C° Halako de Auskalo", toda vez que por causas ajenas a su voluntad y por circunstancias sobrevenidas consistentes en que las obras de reforma del C° Halako de Auskalo aún no están finalizadas ni se prevé que finalicen a lo largo del presente año el Proyecto de arreglo y mejora del camino de referencia, si bien deja abierta la posibilidad de solicitar a esa Asociación la subvención correspondiente al meritado Proyecto dentro de los proyectos a subvencionar desde esa Asociación para el próximo año 1997.

Estimando que en virtud de lo dispuesto en el artículo 91.2 de la meritada Ley, esa Asociación tendrá a bien aceptar de plano el desistimiento presentado por este Ayuntamiento y que, en consecuencia, declarará concluso el procedimiento administrativo iniciado, y en la esperanza de seguir colaborando en adelante con esa Asociación sobre el asunto de referencia, se despide atentamente.

Baina, Auskaloko Udalean ere legea betetzen denez, bi hizkuntza ofizialetan egiten dira alkatearen gutunak eta gainerakoak. Eta orduan hasi istiluak: goiko gutun hori euskara-itzultzailearen eskuetara iristean. Gutuna itzuli behar eta...; itzultzeko, berriz, ulertu egin behar eta...; eta ulertzeko, jakina, deszifratu egin behar eta...; eta deszifratu eta ulertu ondoren, euskaraz-edo ipini eta... Deszifratzaile-itzultzailearen kontuak eta komeriak!

Eskerrak itzultzailea "Idazkera-mintegian" zebilen, Joxe Ramon Zubimendi gidari eta lankide saiatuak lagun! Eta deszifratzaile-

le-itzultzaile gizagajoak mintegira eramán gutuna, ea lagunduko zioten... Handik hamar egunera iritsi zitzaidan bigarren gutuna: mintegian egindako itzulpena-edo zen. Ez dira gero deszifratzaile eta itzultzaile makalak! Hona hemen, hitzez hitz, haien lana:

Auskaloko Udala

Alkatetza honek, Auskaloko Udalaren izenean, dirulaguntza-eskaera bat egin zion Mendi Nekazaritza Elkarte horri, joan den urtarilaren 10ean.

Dirulaguntza hori 1996an Halako baserri-rako bide-zati batean (250 m edo) harrizko pareta egiteko eta zoru emateko da (ikus "Halako baserri-rako bidea konpondu eta hobetzeko" egitasmoa, 2.750.000 pezeta aurrekontua duena).

Aurtengoz, ordea, alkatetza honek erabaki du -30/1992 Legea, azaroak 26koa, 90. eta 91. artikulua- BERTAN BEHERA UZTEA, halabeharrez, egitasmo eta eskaera horiek. Izan ere, baserria bera eraberritzeko lanak bukatzeke daude eta ez omen dira aurtun bukatuko. Hori dela eta, Udalak ezin du aurtun egin aipatutako bide-konponketa.

Nolanahi ere, eutsi egin nahi diogu datorren 1997an eskaera berbera egiteko legezko eskubideari, Elkarte horrek diruz lagunduko dituen egitasmoen artean onartuko dizuelakoan.

Aurrerantzean ere elkarlanean segiko dugulakoan, agur terdi!

Baina ohar bat ere bidali zidan Joxe Ramon Zubimendik, itzulpenarekin batera: ikastaroan ba omen zebilen legeetan aditua den neska argi bat eta, itzulpena itzulpen, haren esanetan erabat legezkoa omen da euskarazko gutun hori edukiz eta idazkeraz. Alegia, erdarazko gutuna ere idatz zitekeela horrela, hain argi eta egoki, alkateari halako gutun baldresak eta aldrebesak sinarazi gabe.

Horiek horrela, berehala sortzen dira galderak: zergatik idazten dira hain gutun eta idazki ulergaitzak?, zergatik itzuli behar izaten dira hitzez hitz?, zergatik ez dira eskribauak gehiago saiatzen erdal idazkiak estilo lau eta argira hurbiltzen?, noiz arte jarraitu behar ote dute eskribau ilunek eta idazki ilunagoek agintzen?, noiz arte segi behar ote dugu erdal musikaren menpe?, eta abar, eta abar.

Eta proposamen bat egitera ere ausartuko ginateke: zergatik ez da "zero" hizkuntz eskakizuna berreskuratzen? Oinarri-oinarritzkoa izango litzateke eta, gainera, derrigor-derrigorrezkoa eta ezinbestekoa eskribau guztientzat. Ez badira gauza euskal idazki egokiak sortzeko, erabil dezatela gutxienez erdara argi eta egokia, gero euskarara erraz itzultzeko modukoa. Ba al dago arrazoirik "zero" hizkuntz eskakizun hori ez ezartzeko? Gastuak asko murriztuko litzuzke, gainera.

Pello Esnal
Idazlea

Pedro Miguel Etxenike:

“Unibertsitateak jakin behar du bereizten zein dabilen buru-belarri lanean, eta zein axolagabekeria”



Pedro Miguel Etxenike EHUko katedraduna da, eta, orain dela gutxi, Ikerkuntzarako Euskadi saria irabazi du. Oraingoan ez diogu galdetuko bere espezialitateaz (materia kondentsatuaren fisika).

Alferrikakoa litzateke. Elkarrizketak gai orokorragoak eskatzen ditu, noski: unibertsitatea, ikerkuntza, euskara edo Trilateralak. Bere ustez, “uneotan EHUk kalitate oneko ikerketa gehiagorik ez badago ez da gure baliabideak eskasak direlako, gu geu hobetu beharrean gaudelako baizik”.

Joan den irailean Ikerkuntzarako Euskadi saria eman zizuten. Nolako garrantzia du sari horrek zuretzat?

Sariduna naizenez gero, ez naiz ni egokiena sariaz mintzatzeko. Dena den, oso garrantzi handiko saria da. Batek, gure Gobernuak emandako saria delako. Bestetik, epaimahaia Euskal Autonomi Elkartertik kanpoko izen handiko zientzilariek osatu dutelako.

Felix Goñik, Zientzi Politikarako zuzendariak, esan du ia bitxia gertatzen dela zu bezalako ikerlari bat hemen izatea. Euskal Herriko ikerkuntza mailari erreparatu gero, hala al da?

Goñik esandakoa eskertzekoa da. Epaimahaiak berak ere esan zuen saritutako lanek nonahi lor zezaketela saria. Hori pozgarria da unibertsitatearentzat, gure taldearentzat eta baita neuretzat ere. Azken batean, zientzia nazioarte mailakoa da. Eta zergatik hemen bizi? Ni izabatarra naiz, Erronkari ibarrekoa, eta atzerrian luzaro ibili banaiz ere, hona itzultzea izan da nire asmoa beti. Estatu Batuetan eta Cambridgen bizi izan naiz, eta kanpoan lan egiteko aukera onak eduki arren, Iparragireren bertso hura datorkit beti gogora: “Herrialde guztietan toki onak badira, baina bihotzak dio: zoaz Euskal Herrira”. Pozik nago etxean, eta hobetu beharrean bagaude ere, hemen badago baldintza egokirik ikerkuntzarako. Une honetan kalitate oneko ikerketa gehiagorik ez bada Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), ez da baliabide eskasak ditugulako, gu geu hobetu beharrean gaudelako baizik.

Ikerkuntzaren beharra

Horren aurrean, zer jarrera hartu behar du unibertsitateak? Unibertsitateak bereizketa bat egin behar du. Esan nahi dut jakin

behar duela bereizten zein dabilen buru-belarri lanean emaitza batzuk lortzeko, eta zein, nolabait esateko, axolagabekeria. Hau da, tratu berezia eman behar dio lan berezia egiten duenari.

Horretaz gain, azpimarratu beharra dago lanpostuak ematerakoan ez litzaiokeela soil-soilik irakaskuntzari begiratu beharko, baizik eta baita ikerkuntzari ere. Burokraziari ere aurre egin beharko genioke, hein batean behinik behin. Izan ere, burokrazia sormenaren etsai amorratua da.

Sarri entzuten da unibertsitatea “funtzionarizazio” prozesuan dagoela.

Funtzionarizazioa aipatzean behin-betiko lanpostuari buruz ari bagara, esan egin behar da ikerlariak halako egoeran daudela mundu

osoko unibertsitatekerik onenetan. Ni ez naiz horren aurkako, beraz. Nire ustez, gure arazoa honako hau da: behin-betiko lanpostuak beste ezer baino lehenago eskuratzeko gogoia; hau da, lan-merkatuaren egoera larria dela-eta, 26 edo 27 urteko gazteak betirako lanpostu baten bila itsu-itsuan ibiltzea. Lanpostu hori ez litzateke lortu beharko garapen zientifiko eta intelektualaren has-tapenetan. Era berean, eta esan dudanez, funtzionarioek ekarpen araberako tratua jaso beharko lukete.

Oliveriren ustez, azken urteetan garapen zientifiko nabarmena gertatu da EHU; Espainiakoa baino handiagoa.

Bai, hala da bi arrazoi nagusirengatik: bateko, gure erakundeek ahaletan handia egin dutelako arlo horretan; eta, besteko, atzerago geundelako. Hobera egin dugu, zalantzarik gabe. Baita ikaragarri egin ere; baina oraindik ez gaude oso egoera onean ingurukoekiko. Bestalde, Autonomia Estatutoak aginpidea aitortzen digu zientzien eta tekniken ikerketan; beti ere, Estatuarekin

Jakina da EHU ez dela Cambridge; baina seguraski Legebiltzarra ere ez da Westminster

koordinatuta. Nolanahi ere, koordinazio horrek ezin utzi dezake bertan behera geure aginpidea. Autonomia Estatutua betez gero, Oliverik aipatutako garapen zientifikoak jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa emango luke.

Ingelesaren garrantzia

Nola ikusten duzu Euskal Herriko Unibertsitatea?

EHUk Euskal Herriko beste erakunde batzuek baino maila altuagoa du, nik uste. Jakina da hau ez dela Cambridge; baina, seguraski, gure Legebiltzara ere ez da Westminster. Dena den, badi-rudi unibertsitatea beti ibiltzen dela bere burua astintzen. Nork bere buruari kritika egitea ez da txarra, inondik ere; baina kritikak sormena baztertu eta emaitzak oztopatzen baditu, ez da onuragarria. Nik neuk gau eta egun kritikatzeko besterik ez dakitenei baino gehiago sinesten diet emaitza onak lortu, eta, aldi berean, kritikak egiten dituztenei. Unibertsitateak hobera egin du nabarmen azken urteotan; dena dela, oraindik badaude alderdi batzuk aldatu beharrekoak, esaterako, gobernu organuen erregulazioa. Izan ere, politikan baliagarria den demokrazia ekarri da hona, eta berdintasun demagogiko batek jakitearen hierarkia ordezkatu du.

Elkarrizketa batean esan duzu zientzia arloko ikerketak euskaraz egin behar ditugula, baina emaitzak ingelesez argitaratu behar direla.

Bai, jakina. Euskarari dagokionez, ikerlari euskaldunek zientziaren arduratuta egon behar dute, eta euskaraz bizi. Baina gizaritari emaitzen berri emateko orduan, lana ingelesez argitaratu behar da. Mitxelenak berak bere buruari galdetu zionez, euskaldun batek lortuko balu Einsteinek fisikan edo Flemingek medikuntzan lortutakoaren antzeko zerbait, nori egingo lioke on euskaraz argitaratzea? Inori ere ez! Lehenik eta behin

gizaritari egingo lioke kalte, gero egileari eta, azkenik, euskarari berari.

Euskararen Legearen balioa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua izan zinen 1980tik 1983ra; Hezkuntza eta Kultura sailburua 1983tik 1984ra; Gobernu bozeramailea, eta, besteak beste, Euskararen Legea eraman zenuen Legebiltzarrerara. Gaur ikusita, baliagarria al da Legea?

Euskararen Legea luzaro izango da baliagarria. Nolabait esateko, oraindik Legearen hastapenetan gaude, hark eman dezakeena agortu arteko bidea oso luzea da. Legea hezkuntza arloan garatu da batik-bat. Oso lege malgu da, eta euskaraz bizitzeko aukera ematen dio euskaraz bizi nahi duenari. Zer dakar horrek? Bada, administrazioa herritarren zerbitzura egotea, komunikabide, hezkuntza eta abarrez arduratzea... Zaila litzateke egungo Legebiltzarrak horrelako lege bati onespina ematea. Oso bestefakoa da, noski, Legea nola garatzen ari den.

Eta, zure ustez, azkarrago garatu beharko al litzateke?

Puntu honetan kontuz ibili beharra dago. Ni ez naute kopuruek kezkatzen. Lehentasunak ezarri behar dira beti. Nire iritziz, askoz inportanteagoa da hezkuntza edo kultura (kalitateko telebista eta zinea...), leihatila bateko langileen %10 edo %20k euskaldunak izan behar duten eztabaidatzea baino. Herri txikia gara eta gai horren inguruan ez dago adostasunik. Hemen inor baztertua bada hori euskalduna da, noski. Orduan, hori saihesten joateko pausoak eman behar ditugu, baina, beti ere, orekari eutsiz, hartutako erabakiak euskaldunen aurkakoak izan ez daitezten.

Lutxo Egia
Kazetaria

Gau eta egun
kritikatzen
dutenei baino
gehiago sinesten
diet emaitza onak
lortu, eta, aldi
berean, kritikak
egiten dituztenei

“Berreskuratutako beharko genuke aurreko belaunaldien portaera, musu-truk gauza asko eman zuen belaunaldi haren portaera”

Ipar-haize gupidagabea jolasean dabil Ibaetako Kanpusean. Euri-tantak nondik hel-tzen diren igarri ezinik, mela-mela eginda iritsi gara Pedro Miguel Etxenikeren bulego-ara. Aurten Ikerkuntzarako Euskadi saria irabazi duenaren mahaia liburuz eta pape- rez gainezka dago: “Galtzak bete lan daukat”. Ez diogu kurrikulurari buruz galdetu, baina, bai, ordea, Trilateralari buruz: “1973an David Rockefellerrek sorturiko elkarte pribatua da. Bere helburua mendebaldeko demokrazien (EEBB eta Kanada, Japonia eta Europa) baloreak defendatu eta zabaltzea da. Bertako kidea naitzen aldetik, nire zeregina eztabaida eta txostenetan esku hartzea da. Ni neu zientzia eta teknikaren garapenak ekonomia-

ren eta hezkuntzaren garapenean izan dezakeen eraginaz kezkatuta nago”.

Etxeniketik harrotasun pittin batez esan digu Erronkari ibarrekoa dela. “Bertakoek geure-geurea dugu Erronkari ibarra. Goio Monrealek esan ohi dit nafarra baino gehiago haranekoa naizela”. Etxenike Donostian bizi bada ere, sarri joaten da hara: “Gogoko dut herriko tabernan julepean egitea, eskiatzea, ehizan ibiltzea, mendira joatea...”. Fisikari eta ikerlari baten irudia arras bestela-

koa badaiteke ere, “zorionez ez nabil egu- nero 24 orduz buru-belarri ikerkuntzan, bazkari legea egiteko astirik gabe, ez. Gainera, beti erradio beretik dabilenak zail du

aurrera egitea. Angelua ireki beharra da- go. Hala ere, angelua larregi irekiz gero, litekeena da oso erradio txiki batekin ge- ratzea”.

Denbora aurrera dihoakigu elkarrizketa- ren amaieraren bila. Hala ere, guk Nafarroan barrena jarraitzen dugu. “Bai, balite- ke gaur egun Nafarroa Euskal Herri- tik urrunago bizitzea. Nire ustez sendotu egin behar ditugu harremanak arlo guztietan: administrazioan, kulturean eta, batez ere, ekonomian”. Etxeniketik harremanok eze- zik, neurri handi batean galdutako jokabi- de batzuk ere berreskuratuko litzuke eus- kaldunontzat: “Hain zuzen ere, aurreko belaunaldiaren portaera, musu-truk gauza asko eman zuen belaunaldi haren portaera. Baita ongi egindako lana ere, beronek toki hobea merezi baitu gurean”.

Ongi egindako
lanak toki hobea
merezi du gurean

Euskal Herriko administrazioetako langileen satisfazio-maila euskara ikasteen

Lanaren nondik-norakoak

Herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko egiten ari diren saioetan, besteak beste, langileen gaitasuna bultzatzea helburu dutenek berebiziko garrantzia hartu izan dute amaitu berri den I. plangintzaldian. Gauzak horrela, 1990etik aurrera batik bat, administrazioetatik sortutako beharrei erantzun ahal izateko euskara-ikastaroak ugaltu egin dira, 3.500/4.000 bat langile aritu izan delarik urtero euskara ikasten, lanordutan zein lanorduz kanpo, Euskal Herriko hainbat eta hainbat eskalategitan sakabanaturik, erritmo eta ordutegi ezberdinen arabera. Antzeko ezaugarriak zituzten langileak bildu ahal izan direnean, beraientzako bereziki eratutako taldeetan gauzatu da eskolaratzea.

Langile horien ikasprozesuari arretaz jarraitzen zaio HAEE eta HABEren lankidetzeta dela medio. Iazko urtean, ohiko segimenduz gain (urratsez urratseko ebaluazioak, asistentzia, eskalategietako arduradunekin egindako bilerak etab.) langile ikasleek eskalategietan jasotako irakaskuntzari buruz dituzten iritziak biltzeari ekin genion berriaz prestatutako galdesorta eta ikasgelaz ikasgelako elkarrizketen bidez.

Helburuak

Lanaren helburua langile ikasleek beren ikasprozesuaz zituizten iritziak, usteak, kezak... hurbilagotik ezagutzea zenez, ahaletin bizia egin zen, idatzizko galdesortaz gain, ahalik eta ikaslerik gehienekin hitz egiten. Xede horrekin, bada, eskalategietara galdesorta aplikatuzera joandako lagunek bazuten eskarmenturik helduentzako euskararen irakaskuntzan, irakasle ohiak ziren-eta.

Lagina

Bakarrik lanorduen barruan ari ziren administrazioko ikasleek osaturiko taldeak jo ziren begiz; denetara 1.024 ikaslek parte hartuz; hots, 1995eko martxoaren azken astean inkestatzaileak geletara sartu zireneko une horretan aipatu talde horietan ari zirenen %80 inguruk.

Neurpideak eta prozedura

Galdesorta bat, era anonimoan erantzutekoa, prestatu zen. Eta, horretarako honako autoreen lanak hartu genituen kontuan, besteak beste: Phillips (1974), Marsh (1982) eta Villa (1985) Horrela bada, 28 galdera egin zitzaizkien langile ikasleei galdesortan. Horietatik hiru, ikaslearen gutxieneko ezaugarri batzuk jasotzeko, esaterako: *zein urratsetan ari zara ikasten?* Ondorengo hogeitalau galderak Likert tankerakoak, zazpina puntutako eskalaz prestatu ziren (1 = Ez nago batere ados, 7 = Guztiz ados nago). Hona hemen adibide batzuk: 03) *Ikasgelan ez dut inoiz uste izaten denbora galtzen ari naizenik.* 08) *Aktibitate mota bakoitzari eskaintzen zaion denboraren proportzioa zuzena da; hots, ez dugu aktibitate batean denbora gehiegi pasatzen eta beste batean gutxiegi.* 016) *Taldeko giroa ona da ikasteko.* Eta, galdera ireki bat bukaeran ikasle bakoitzak, hala nahi izanez gero, bere iruzkinak erants zitzaiz.

Ikasleek bakarka eta idatziz erantzun ostean aplikatzaileak ikasleei galdetzen ziren ea, talde bezala, ikasprozesuaz zerbait gehiago esan nahi zuten.

Emaitzak

Honela jasotako informazioaren arabera, esan dezakegu ondorio gisa langile ikasleria konforme dagoela, oro har, eskaintzen zaion irakaskuntzarekin. Halaxe adierazi zuten ikaslerik gehienek. Hona hemen, bestalde, azaldutako kezkarik usuenak: norberaren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatze frogatik egiteari beldurra, irakasestiloa ikaslearen jiteari gehiago egokitu eta talde homogeneoagoen beharra, ikasi eta gero nor bere lantokian nahiz famili

giroan edota lagunartean euskara erabiltzeko aukerarik ez izatea eta norberaren euskalduntze-prozesuaz arlo didaktikoan nahiz administratiboan ere informazio gehiagoren beharra.

Galdera itxiei emandako erantzunak ere ildo beretsutik joan ziren. Zazpi puntuko eskala eskainita, ez da galdera bakar batean ere lagin osoa harturik eta batez bestekoei begira, "Ez ados ez kontra", hau da 4 puntu, baino balorazio apalagorik ageri. "Baloraziorik xumeenak" 11. itemean ($\bar{x} = 4,89$; $ds = 1,72$) eta 17.ean ($\bar{x} = 4,49$; $ds = 1,72$) bistaratu dira; hots, *Ikasturtearen hasieran ikasprozesuaren berri zehatza eman zuen (irakasleak); helburuak, epeak, urratsa zer den, eskalategiko ebaluazioak nolakoak diren...* Eta, *Irakasleak esaten dit, noizean behin edota epe jakinetan, nire aurrerabidea nola ikusten duen eta hobetzeko zer egin dezakedan.* Badirudi, beraz, ikasleei eskuetatzen zaizen informazio gutxi dela esaten ez badute ere, eskertuko luketela argibide gehiago beren aurrerabideaz eta -galdera irekiak eta elkarrizketek ikusaraziaren arabera- prozesu administratiboaz ere bai. Esan dezagun, bide batez iazko ikasturtean argitaratu zela hizkuntz eskakizunak egiaztatze hainbat azterketa-ereduren bilduma eta 96-97 ikasturte honen hasierarako dagoela aurreikusia informazio gidaliburutxo bat ere plazaratzea. (Artikulu hau argitaratzen denerako kalean behar du).

Ikasleen arteko aldeei dagokienez, aipatzekoa da galdera guztietan ageri zela era esanguratsuan alfabetatzeko taldeetan ziharduten ikasleek, hots, euskaldunzaharrek emandako puntuazioak altuxeagoak zirela gainerako urratsetako ikasleek emandakoak baino. Halaber, ikasgelako giroa eta irakaslearen dinamismoa gai zituzten hainbat itemek ere puntuazio altuagoak eskuratu zituzten 2. hizkuntza eskakizuna eta, batez ere, 1.a gaintu behar zuten ikasleengandik 3.a gaintu behar zutenengandik baino.

Esatekoa da, ikastalde ikastalde ere sailkatu zirela datuok eta tokian tokiko irakaslearekin edota eskalategiko arduradunekin batera aztertu eta irakurri zirela, behar izanez gero irakasteen moldapenak egitekotan.

**Sebas Agirre
Josu Perales**
HABE

Euskalan elkarteak lan-arloan bultzatu nahi du euskararen erabilera

Deba Garaia eta, bereziki, Arrasate dira gaur egun aitzindari euskalgintzan. Bailarako euskara elkarte eta taldeak, urteak joan urteak etorri, eredu bihurtu dira beste hainbat herritako euskaltzaleen begietan. Arrasatearrek ederki erakutsi dute zer-nolako garrantzia duen herri-elkarteen jardunak euskararen normalkuntzan. Herri-elkarteek arlo anitzetan zaintzen dituzte bai euskararen ezagutza bai erabilera bai horren aldeko jarrerak: komunikabideetan, aisialdian, familian, merkataritzan... Baina, agian, horietan guztietan lan-arloa da aldaparik gogorrena. Enpresetako euskaldunen kopurua, lan-orduetan erdaraz mintzatzeko ohitura, edo euskara lan-hizkuntza bihurtzeko motibazio eskasa dira, besteak beste, euskara esparru horretan sartzeko zailtasunik handienak. Hala eta guztiz ere, zaila izanagatik ez da ezinezkoa. Beste alde batetik, kontuan izan behar dugu ekonomia eta, zehazkiago, lan-arloa gure gizartearen ardatz eta lehenetasun nagusia dela; hori dela eta, euskararen geroa zeharo lotuta dago lan-arloaren bilakaerari. Euskarak aurrera egingo badu, ezinbestekoa da lan-eremuan sarbide izatea; bestela, etxe zulorako hizkuntza besterik ez dugu izango.

Deba Garaian urte askotako eskarmentua

Deba Garaian inon baino hobeto dakite enpresetan ere euskaraz egin behar dela. Horren asmotan, *Euskalan* elkarteak sortu zuten pasa den urtarrilean. Esther Apaolaza *Euskalaneko* partaideak esan digunez, "Euskalanek Deba Garaiko kooperatiba eta lantegietako langile euskaltzaleak batu, euskararen aldeko jarrerak bultzatu, enpresetako dinamika desberdinak koordinatu, eta, azken batean, euskararen erabilera areagotu nahi du ahozko zein idatzizko harremanetan, kanpokoetan zein barrukoetan, komunikazio formaletan zein informaletan".

Ez dago *Euskalan* elkarteari buruz hitz egiterik, euskara eta lan-arloaren inguruan Arrasaten bildutako esperientzia luzea aipatu gabe. Hortaz, ezin bazter utzi, hamar urtez Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarte-ko adarra izan den Euskalan taldearen lana edota bailarako beste herri-elkarte batzuen. AEDko Euskalan taldea 1986an sortu zen, euskara lanaren esparruan bultzatzeko. Joxe Etxeberriak eta Juan Luis Arexola-Leibak *BAT* soziolinguistika aldizkarian idatzi dutenez (*BAT*, 11. zenbakia), "1986ko urrian Arrasateko Kooperatibetako jendeari deitu zitzaion; izan ere, bertan euskararen aldeko dinamika ez bazegoen ere, urte batzuk lehenago horretantxe serio aritutako euskaltzale multzoa baitzegoen (...) Euskalan 1987ko hasieran eman zen ezagutzera 'Euskeraz dakixenak ein daixela' kanpainaren bidez. Kanpaina honen bidez, enpresetako arduradunei, sindikatuei eta langilegoari, oro har, euskararekiko jarrera eta praktika positiboa ager zezaten, zenbait eskakizun biltzen zituen proposamena luzatu zitzaion".

Hamar urteotan barrena, AEDko Euskalan taldeak ekimen ugari jarri ditu abian (sentsibilizazio kanpainak egin ditu; euskarazko ikastaroak antolatu; enpresetako euskara-batzordeak sortu; Korrikan eta horrelakoetan parte hartu; plangintzak egin...), eta, horri guztiari esker, esperientzia polita jaso du. Dena den, Esthe-

rek argitu digunez, "Euskalan AED barruko azpitalde bat zen, eta Arrasaten baino ez zen aritzen. Egia esan, ez zeukan jarduerarik handirik. Euskaltegietan matrikulatzeko garaian, kanpaina bat egiten zuen langileen artean euskara bultzatzeko: kartelak ipintzen zituen euskara lan-mundura zabaltzeko, Korrika gisako kanpainetan parte hartzen zuen... Sostengu-ekintzak antolatzen zituen, batez ere. Garai hartan egoera kezagarria zela ikusten genuen, eta zeozer egin beharra zegoela".

Euskarak aurrera egingo badu, ezinbestekoa da lan-eremuan sarbidea izatea

Dena dela, Arrasaten ezezik, bailarako beste herrietan ere, euskarari bultzada berria eman behar zitzaioelakoan lan-esparruan, orain dela urte bete inguru, eta AEDko Euskalanen deiarri erantzunez, Deba Garaiko MCCko kooperatiba eta beste lantegietako hainbat euskaltzale bildu ziren gogoeta egiteko asmoz. Bilera horien ondorioz *Euskalan* elkarteak sortu zen. "Urtarrilean jaso genuen AEDko Euskalan taldeetik dei berezi bat. Lehen bilera hartan kooperatiba eta enpresa batzuetako hamabost bat lagun elkartu ginen. Batzuek ez zuten aurretik

eginiko lanaren berri; beste batzuk, berriz, jakinaren gainean zeuden. Orduan honako galdera hau egin genion geure buruari: orain arte bezala jarraitu behar al dugu edo aldatu? Ikusten genuen metodologia baten beharrean geundela, Elay edo Ikerlan enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko planak egokiak zirela... Beste bide berri batetik jo behar genuela-eta, *Euskalan* elkarteak sortu genuen" azaldu digu Jose Ramon Elortza *Euskalaneko* partaideak.

Euskalan, 1.200 bazkide baino gehiagoko elkarteak

Euskalan elkarteak hastapenetan dago. "Argi geratu behar da oraindik ez dugula ezer egin. Asmo ugari daukagu, bai, baina oraindik ez dugu aparteko gauzarik egin" azpimarratu digu Elortzak. Eta egia izanik ere *Euskalan* elkarteak hasi berria dela, agerikoa da badagoela nolabaiteko mugimendua Deba Garaia aldean. Lehenik eta behin, euskaltzaleak elkarte batera bildu dira,

hots, egitura berri batera. Elkartea dirurik ordaintzen ez duten bazkideek osatzen dute: "Gaur egun, zehatz-mehatz esaterik ez badugu ere, *Euskalane*k 1.200 bazkide inguru ditu. Berauei ez zaie dirurik eskatzen, bai, ordea, koherentzia. Borondatez egin dira bazkide, eta, orduan, ahozko edo idatzizko harremanetan euskaraz egiten ahalegin daitezten eskatuko zaie".

Jakin badakigu, beraz, zein den *Euskalane*ko helburu nagusia: lan-arloan euskararen erabilera normalizatzea. Baina hortara heldu ahal izateko, elkarrekin beste helburu txikiago batzuk ere hartu ditu bere gain. *Euskalane*k argi dauka "euskaldunon lana dela euskara lan-arloan txertatzea; eta hori lortzeko, gure kooperatibetan eta enpresetan barreiaturik ditugun euskaldun euskaltzaleak bildu nahi ditugu. Horrekin batera, motibazioa indartzea eta euskara-batzordeak osatzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Zenbait enpresatan (Fagor Elektresnak, Ederlan, JMA eta abar) euskara-batzordeak lanean ari dira, eta urtero-urtero ekin-tza bereziak bideratzen dituzte, euskarazko ikastaroak direla, boletinak, itzulpenak eta abar. *Euskalan* orain ditugun batzorde horiek elikatzeaz arduratuko da, eta horretaz gain, gauzatu daitezkeen ideiak proposatuko ditu, eta proposamen horiek aurrera ateratzen lagunduko".

Gaur egun enpresa guztietan ez dago euskara-batzorderik; horrelako batzordeak sortzea izango da, beraz, *Euskalane*k bere buruari jarri nahi dion helburuetako bat. Aurtengo asmoen artean, hain zuzen ere, *Euskalan* elkarrekin 15 euskara-batzorde osatu nahi ditu, eta 10 enpresatan euskara sustatzeko planak garatu. "Euskara-batzorde informalek bat sor daiteke baldin eta euskaltzale batzuk euren kabuz biltzen badira. Oso bestelakoa da, kooperatiben kasuan adibidez, Kontseilu Sozialak sortutako batzordea. Bertan, Kontseilu Sozialeko eta departamentu guztietako ordezkariak esku hartzen dute. Horixe da, kooperatiba batean beti ere, batzorde formal bat. Nire iritziz, ez da oso zaila euskara-batzorde bat sortzea, baina gero langileen artean lan egin behar. Hor dago benetako erronka. Egia da, baita ere, plangintza martxan jarri eta gero, plangintzak berak laguntzen duela", adierazi du Elortzak. Bestalde, esan bezala, hainbat kooperatiba eta enpresatako euskaltzaleak harremanetan daude *Euskalane*kin. Enpresa horietako batzuk honako hauek dira: Fagor Elektresnak, Fagor Arrasate, Fagelektro, Fagor Automation, Fagor Ederlan, Fagor Sistemak, Copreci, Ikerlan, Euskadiko Kutxa, Ulma Taldea, MCC eta LKS, Lagun Aro, Alecop, Lanbide Hastapena, Eskola Politeknikoa, Elay-Balzars-Seytra eta JMA.

Zuhur eta tentuz jokatu beharra

Deba Garaian pausoz pauso joan nahi dute. Urte askotako eskar-

mentuak erakutsi die lan-arloa ez dela eremurik egokiena arin-keriaz jokatzeko. Kooperatibek eta enpresek egoera desberdina daukate, eta, bateko edo besteko neurriak hartzerakoan, egoera bakoitza izan behar da kontuan. "Urtarrileko bilera hartan Elay eta Ikerlaneko ereduak onak zirela ikusi genuen. Hortik jo beharra zegoelakoan geunden, baina, beti ere, Ikerlaneko eta Elayko kasuak bereziak zirela konturatu-ta; hau da, elkarrekin alderatuz gero, esperientziak oso bestelakoak direla, nahiz eta mikroplangintzak berdina izan. Hausnarketa honek berdin balio dezake kooperatiba eta enpresa guztientzat, ez baita gauza bera enpresa batean langileen %20a edo %80a euskalduna izatea".



Enpresen arteko aldeak jarraitu beharreko bidea zein den erakusten dute. Helburuek bat etorri behar dute enpresa bakoitzeko egoerarekin. Eta hor, noski, faktore ugari sartzen dira. Esther Apaolazak esan digunez, "bada-

go, nolabait esateko, helburu orokor bat, *Euskalane*koa; baina gero enpresa bakoitzean helburu zehatz batzuk ezarri eta finkatuko dira, tokian tokiko baldintzak kontuan hartuta. Ikerlanek, esateko, badu plan bat martxan. Eta horrek ez dauka zerikusirik beste enpresa batzuetan ezarriko diren helburuekin. Lantoki batzuetan orain arte erdara hutsen kaleratzen zen materiala euskaratzeari ekingo diote; beste batzuetan euskara bultzatzen saiatuko dira... Eta bada ezinean ibiliko denik ere, noski. Datu horiek guztiak kontrolatu egin behar dira. Horretarako, *Euskalane*n kontrastatu egingo ditugu -badugu hori egiteko batzordea-, eta baita hori edo hura ondo doazen ikusiko ere, nahiz eta enpresa bakoitza libre izan nahi duena egiteko. Kontraste horiek aberastu egingo gaituzte, dudarik ez".

Helburuek bat etorri behar dute enpresa bakoitzaren egoerarekin

Halaber, badago beste batzorde bat, erakundeen aurrean (udalak, Eusko Jaurlaritza, sindikatuak, kooperatibak...) agertzeko. Batzorde hori garrantzitsua da, enpresetan planak bideratzeko orduan: "Edozein enpresatan ekimen bat sortuz gero, nork finantziatuko du ekimen hori? Garbi dago ekimena martxan jarri baino lehenago, harremanetan egon beharko dugula erakundeekin".

Aurrerantzean *Euskalan* elkarrekin lan eskerga egitera behartuta dago, euskara lan-esparrura poliki-poliki sartuko bada. Gaur egun, Elortzak eta Apaolazak behin eta berriro azpimarratu dutenez, hastapenetan daude. Badakite urrats batzuk egin dituztela (elkarrekin sortu, bazkideak bildu, harremanak sendotu hainbat enpresatan...), eta bide beretik jarraitu behar dutela. Hala ere, egungo egoera beltzak ez du eragozpen izan behar aurrera jarraitzeko: "Hemen sarri baikortasun kritikoa buruz mintzatzaren gara, hau da, baikorrak gara beti, baina geure burua engainatu gabe".

Tere Barrenetxea (Elhuyar):

“Plan zehatzik gabe oso zaila da enpresetan euskarak aurrera egitea”



Zein da euskararen eta lan-arloaren arteko harremana gaur egun?

Euskararen eta lan-arloaren inguruko gaia plazaratu beharra dago, nik uste; horrek euskararentzat dituen ondorioez jabetu behar baitu jendeak. Oraingoz, nolabait esateko, oso esparru mugatuetan dabilen gaia da, bai euskalgintzan gabiltzanon aldetik bai lan-arloari lotuta dauden aldetik (enpresariak, sindikatuak, langileak...). Oraindik oso jende gutxi konturatzen da gai horrek euskararen etorkizunerako izan dezakeen garrantzia. Hezkuntza edo komunikabideetan argi daukagu euskaraz egiteak duen garrantzia. Lanaren esparruan, berriz, jendeak ez ditu kontzeptu horiek hain garbi. Orduan, gai hori landu eta plazaratu egin behar da, gizartearen baitan kontzientzia sortu, eta kontzientzia hori lan-munduko maila guztietara zabaldu. Horretarako, *Euskalan* bezalako elkarte bat oso egokia izan daiteke.

Zein da modurik onena enpresa batean euskara bultzatu eta sartzeko?

Plangintza bat edukitzea oso inportantea da beti, erreferentzia baita denentzat: zuzendaritzarentzat, langileentzat... denentzat. Plan zehatzik gabe oso zaila da enpresetan euskarak aurrera egitea. Hala eta guztiz ere, ez dut uste mikroplangintzena irtenbide bakarra denik.

Non da errazago plan bat sartzea?

Metodologia desberdinak erabili behar dira egoera desberdinen aurrean, noski. Enpresa bere osoan hartzen duen plangintza bat ezinbestekoa da beti. Baina nola iritsi horretara? Euskaldun asko edukita? Euskaltzale asko? Nolako eragina du kanpoko presioak? Guk erabiltzen dugun metodologiarako behar-beharrezkoa da euskaldunen kopurua gutxienez %50etik gorakoa izatea. Gero, enpresan plangintza sustatuko duten lagunak aurkitu behar dira, plangintzaren euskarri izango diren euskaltzale su-

tsuak, alegia. Eta, gainera, lagun horiek ahalik eta maila gehienetan egotea komeni da; hau da, baten bat zuzendaritzan, besteren bat langileen artean eta abar.

Arlo honetan aurrera egitea oso zaila da. Atzera joatea, berriz, nahikoa erraza. Nola jokatu behar da euskara lan-arlora sartzeko orduan?

Nik, geuk nola jokutzen dugun azalduko dut. Lehenengo eta behin, bideragarritasun azterketa bat egin behar da, eta, gero, planaren diseinua. Bi fase horien hasieran, eta, bereziki, bukaeran, garrantzi handia ematen diogu enpresan informazioa ondo zabaltzeari, eta baita langile bakoitza jabetzeari ere plangintza zer-nolako eginkizuna duen. Une horretan ikusi behar da eskuarteetan daukagun plan hori bideragarria den edo ez. Izan ere, gero, plana martxan jartzeak onura pertsonalak eta enpresarentzakoak ekar ditzake, bai; baina baita kostu batzuk ere: edozein aldaketak edo plan berri batek inplikatzeko eskatzen dio norberari, enpresari laguntzea... eta, orduan, ez da iritsi behar fase horretaraino, gauzak oso kontrolatuta ez badaude.

Zer aholku emango zenieke *Euskalaneko*ei?

Bere buruarekin konfiantza baldin badute eta zertan ari diren argi baldin badute, lanean gogor segitzeko esango nieke. Une honetan ausardiaz jokatu behar dugu. Lan-arloan oraindik ere atrebertzia behar da gai hau kaleratzeko, eta, alde horretatik, *Euskalaneko*ek oso garrantzi handiko lana egin dezakete. Amore ez emateko eta lanean tinko jarraitzeko eskatuko nieke, beraz.

Enpresan plangintzaren euskarri izango diren euskaltzale sutsuak aurkitu behar ditugu

Lutxo Egia
Kazetaria

Norbaiten edo zerbaiten berri ematen

Nor-edo-noren edo zer-edo-zeren berri eman beharra daukagunean idatziz, esango nuke gauza errazak bihurtzeko tentazioan jausten garela oro har aspaldion.

Eta neure iritzia eman gura nuke horretaz artikulu honetan. Baina, behar besteko tokirik ez-eta, norbaiten berri zelan eman, horren gainean ihardungo dut eta adieraziko, zelako egiturak baztertu behar ditugun eta zelakoak erabili, nire ustez.

Informazioa banatzen: egitura informatiboa

Nor-edo-noren berri eman beharrezko estrukturan, informazio mota bi dago nagusiki: batetik, informazio-gunea bat; bestetik, informazio-osagarri bat edo batzuk. Esate baterako:

1. GUNEA: neska
2. OSAGARRIAK: hilegorria / itzelezkoa autoa duena / mutilez inguratuta ibiltzen dena

Gogoratu gura dut osagarri edo konplementuek, euren deiturak adierazten duenez, gunea –adibideetan beti izena– osatzen dutela informazio mailan, edozein dela ere gunea eta osagarrien artzako ordena. Osagarrietako informazioek guneari egiten diote referentzia, haren mendekoak dira-eta. Esan liteke osagarriak zintzilik, eskegita, daudela gunetik informazio aldetik.

Eta informazio guzti hau, gune-osagarriena alegia, estruktura bitan, oro har, eman daiteke: egitura *analitikoan* eta *sintetikoan*. Ordena analitikoan (eduki globalenetarik parteetara) honela:

- (1) “NESKA bat ezagutzen dut hilegorria, itzelezko autoa duena eta mutilez inguratuta ibiltzen dena”

Eta ordena sintetikoan (parteetatik globalenera) honetara:

- (2) “Itzelezko autoa duena eta mutilez inguratuta ibiltzen den NESKA hilegorri bat ezagutzen dut”

Ikuspegi pragmatikoa: kostu-irabazia baloratzen

Zentzu komun hutsak erraten badigu ere (1) perpausa erraz prozesatzen dugula, eta (2)a penaz, nekez, erakutsi gura nuke horren zergatiak.

Idazleak estrategia egokiak hautatu behar ditu bere mezua ahalbait argien eta garbien emateko. Bestalde, irakurleak razionalizatu egiten du hartzen duen diskursoa. Hau da, zenbat kostatuko zaion ulertzea mezua, zenbateko ahalegina egin beharko duen eta horren ordainez zenbateko etekina aterako dion diskursoari.

Azter ditzagun zenbateko erraz edo nekez prozesatzen ditugun (1) eta (2) esaldi aztergaien estruktura. Ordena sintetikoan emandako (2) esaldi aztergaia

“Itzelezko autoa duena eta mutilez inguratuta ibiltzen den NESKA hilegorri bat ezagutzen dut”

honetara dago egituratuta informazio mailan:

[(osag.-1) + (osag.-2)] + [GUNEA] + (osag.-3)

Idazleak estrategia egokiak hautatu behar ditu bere mezua ahalbait argien eta garbien emateko

Ordena sintetikoan osagarriak dindilizka daude gunetik, beronen mendean, beroni egiten baitiote referentzia. Horregatik lehen osagarria irakurrita, beronen informazioa aidean geratzen da zeri lotuko zain. Bigarren osagarria irakurritik, beronen informazioa –lehenengo osagarriaren gain– eskegita gelditzen da zeri oratuko begira. Gunea irakurri ondoan ez dugu makala hartzen lasaitua, oraintxe baitakigu zeri egiten dioten referentzia irakurritako osagarriek. Baina oraindino buruan gordeta ote daukagu irakurritako osagarri bien informazioa? Ez dut uste, irakurleak eduki ezik elefante memoria

edota gastatu ezean itzelezko energia informazioa atxikitzen gogoan. Horra zergatik izenaren ezkerretara-osagarriak josiriko esturturek eskatzen diguten lan mandoa gogoan eusteko, beti ere aurre-testurik gabeko egoeretan eta informatu nahi dugunean, eta ez ilundu.

Hara zergatik ikuspegi pragmatikotik (kostu-irabazia) ikertuta (2)a lako estruktura ez diren komunikagarriak, informatiboak. Buru-nekagarri dira, porrot egiten dute eta sarri irakurleen amorragarri eta uxagarri bihurtzen dira. Ordena analitikoan emandako (1) esaldi aztergaia

“NESKA bat ezagutzen dut hilegorria, itzelezko autoa duena eta mutilez inguratuta ibiltzen dena”

honetara dago egituraturik informazio mailan

[GUNEA] + [(osag.-1) + (osag.-2) + (osag.-3)]

Ordena analitikoko (1) perpausa prozesatzeak ez du eragiten nekerik, (2)ak ez legez. Izan ere, lehenengo emanez gero informazio nagusia, gunea, beronen informazio globala osatuz-osatuz doaz osagarriak progresioan. Eta, jakina, pertsonen berri emateko esanikoek balio dute gauzen berri emateko ere.

Konklusioa

Nik uste, norbaiten edo zerbaiten berri eman nahi izanez gero ahalbait eta argien, ordena analitikoko estruktura erabili behar da, beti egin dena ahozko eta idatzizko tradizioan. Ordena sintetikoan baliatuz gero, buru-nekagarri eta gogait eragingarri bilakatzen da eta, horrenbestez, antikomunikatibo eta antiinformatibo.

Mixel Kaltzakorta
Irakaslea

Funtzionario fina

(edo amodio-ipuina)

Marife –inork ez zekien Maria Felisa, Felipa, Fernanda ala Fermina zen– funtzionario fin-fina zen, urre garbia. Funtzionarioen aurka asko hitz egin, baina han hiritarrak ziren hortik honakoak. Logurarik gabeko jubilatuak beti goizegi atejoka, gainerako gehienak beranduegi gogait eragiten. Baina Marife beti irribarrez. Hiritarrek sekula ez zuten itxaroteko ilara ganoraz egiten, inoiz ez zioten eskatutako guztia batera eta behar bezala eramaten. Ondo argi zegoen inprimakietan 4 argazki zuri-beltz behar zirela, eta han zeukan agure iletsu bat koloretako 3 erretraturekin; 25 pezetako bi poliza eskatu eta han zeukan gazte burusoil bat 5 pta.ko 2rekin. Baina Marife beti adeitsu guztiekin. Eskatutako argibideak zehazki eman ondoren, esker oneko hitz erdirik gabe alde egingo zion handizale-itxurako mottodun andere txapelak. “Mesedez, ez erre” garbi jarri arren kartelak, han izango zuen enpresario korbatadun harroskoa, ez tulka birrikak bota beharrean, ezpainetatik zigarroa kendu gabe. Marife ez zen egundaino inorekin garrastu eta ozpindu, beti begirunetsu mari-maisu eta limurtzaile haiekin. Egonarri eta eroapenean Job santua ere ez zatekeen haren orpo ederretara iritsiko.

Mariferen gainekoak gora begira zeuden, ohi bezala, eta nekez preziatzen zituzten azpikoaren lan eskerga eta merezimendu kontaezinak. Marife, ordea, ez zebilen mundu honetako sari bila. Urte batean soldata izoztu, bigarrenen jela eta hirugarrenean hormatu ziotenean, inolako arranguririk gabe, aingeru bulegariak Entziklopedian begiratu zuen Maïstricht nor ote zen, bere ezbeharraren eragiletzat aipatu baitzioten. Inoiz kexa edo protesta txiki-kienik ere ez. Marife beti zebilen arduratsu eta kezkatu lana nola hobetuko, zerbitzua zelan eraginkorrago bihurtuko.

Inon ez da, ordea, arantzarik gabeko arrosarik, eta Marife ere bazuen hutsune txiki bat. Gurasoak euskaldunak zituen bai, baina testamentuan bi pisu utzi zizkieten, eta euskara gutxi (izan ere, hain gogorra izan zen Francoren garaia!). Deustuko Unibertsitatean ikasketak egin zituenean, *Ad majorem Dei gloriam* jesuitek *Business English* irakatsi zioten, eta euskara... gutxi ere ez. Beraz, herritarrari zerbitzu hobe emateko goiburuaz, euskara ikasteari ekin zion gogotsu. Tipi-tapa, pauso bat eta bi urrats, 3. hizkuntz eskakizuna prestatzeko mailara iritsi zen. Ikasturte berria, irakasle berria: Joxemari. A zer mutil-puska, gainera! Egia bada ere gustuko aldapan ez dela nekerik, egia da, halaber, nekerik gabe ez da goela ogirik, eta Mariferen burmuinak pixka bat lehortzen hasiak ziren hizkuntzetarako; beraz, kosta egiten zitzaion. Halaz guztiz, Joxemariaren ondoan oso gainbehera, oso irentsi erraza egiten zitzaion dena; ikaragarri ari zela ikasten iruditzen zitzaion, eta oharkabean euskararekin batera irakaslea ere buruan sartu zitzaion. Denborarekin burutik bihotzera igaro zitzaion eta, azkenean, ohera nola eramango hasi zen pentsatzen; izan ere,



Marifek bazekien gizakia ez dela bakarrik egoteko egina, asteburuetan batez ere, eta are gutxiago berrogei urteren inguruan bazabiltza. Gainera, Joxemari, Ibarako pago lerdena, bertute guztiez apaindua ageri zitzaion azal ederraren azpian. Marife amesgaizto guztiak baztertu eta amets ederrak egiten hasi zen gauzez. Eguna, berri, euskara ikasteko irrikaz ematen zuen. Hura maisutasuna (eta gorputza) Joxemariena! Egia esan, Marifek praktika gehixeago nahiko zukeen, mintzapraktika, idazpraktika, irakurpraktika... edozer

praktikatze prest zegoen, baldin eta... Baina Marife lotsatia ere bazen, beldurtia, herabea, izubera... izarrak alde jarri zitzaizkion arte.

Egun hartan, Euskadi Irratiko horoskopokoak ohartarazi zuen goizean goiz: “Kontuz, Virgo –oso virgo zen Marife–, egun gazi-goza izango duzu gaur, egun gazi-geza; kontuz, Virgo, aprobetxatu aukerak”. Eta eguna ezustekorik gabe igaro zen, arratsaldean etxeratu eta gutunontzian triptiko bat aurkitu zuen arte; paperean hauxe:

“LANGAI ZENTRU LAGUNTAILEEKIN bitartekatzen da. Hauek, LANGAIREKIN laguntzen duten instituzio, enpresa eta lanezko bitartetza, profesional eta lanbide heziketa dira, dauden ekimenak gehien baliatuz, eta sarean integratuz”.

Ene Jesus! Eta berriro irakurri zuen, behetik gora, goitik behera, ezker-eskuin... Bai zera! Tutik ez. “Hainbeste saiatu euskara ikasten eta papertxo hau ezin ulertu? Nireak egin du! Gauza bera gertatuko zait Joxemariarekin ere, sekula ez dut neurea izango. Ez euskara eta ez irakasle, kito!”

Etsita, bihotz galdurik, eskolak uztea erabaki zuen, denbora alferrik galtzen ari zelakoan. Di-da telefonoa hartu eta erabakiaren berri eman zion maisuari. “Baina, Marife, ezin duzu hori egin. Ez behintzat lasai hitz egin eta gauzak hobeto pentsatu gabe. Har dezagun garagardo bat oraintxe”.

Joxemariarekin elkartu zenean, barruak gainezka egin zion begietatik: –Begira honi! Ez dut txintik ulertzen! –bota zion Marifek negar-zotinka.

Joxemari triptikoa behin, bitan, hirutan irakurri eta gero:

–Nik ere ez, Marife!

–Gainera... maite zaitut, Joxemari!

–Nik ere bai, Marife!

Ariketak

1. Emazazu euskaraz LANGAIri buruzko goiko pasartea, Mariferen atsekabe eta zori-naren eragilea.

2. Idatzi beste 2 orrialde Marifek eta Joxemari odoaren zer egingo duten irudikatu eta azalduz. Hizkera argiaren eta euskara garbiaren bidetik idatzi, baina ez santujaleak eskandalizatze bezain argi eta garbi.

Iñaki Mendiguren
Idazlea

Itzulmatika: informatika itzulpengintzaren esanetara

Mesopotamia zaharreko akadarrak sumiarren testuen itzulpen inplizituak egiten zituztenez, ez zeukaten beste tresneriarik burua eta, agian, luma baino. Jauzi itzela eginez, Joannes Leizarragak Bibliaren itzulpena egin zuenean, ez pentsa gero askoz ere tresneria hoberik izango zuenik. Gugandik hurbilago, Orixek, ordea, idazmakina erabiltzen zuen bere idazkiak argitaratzeko. Eta, gaur egun, guk zer dugu bada? Teknikak zein baliabide eskaintzen dizkigu itzulpen-lanetan jarduteko? Erantzuna jakina da: informatika eta horren bidezko tresnak.

Informatikaren aukera berriei adi

XX. mendearen amaieran, itzulpen-eginkizunetan dabilen edozeinek, orain ez bada gero, ordenadoreari helzen dio eguneroko lan idatziak egiteko. Baina horrelako tresna batek ez du apaingarri hutsa izan behar. Eskaintzen dituen aukera guztiez baliatzea ezinbestekoa da behar bezalako etekina ateratzeko.

Administrazioan, sarri errepikatzen dira testuak (dekretuak, aginduak, erabakiak, akordioak, txostenak, deiak, gutunak...), eta aurretik itzultakoa kasu bakoitzean erabil daitekeen jakiteko, testuak erkatu behar ditugu. A ze lan astuna!! Baina informatikaren bidez, eta, zehazki, Word 6.0k eskaintzen duen aukera batez baliatuz, erkaketa gogaikarri horiek automatikoki egiten dira, segundu batzuen buruan. Dokumentu bien arteko aldeak modu grafiko ezberdinez adierazten ditu dokumentu bakar batean. Hortaz, itzultzailearen hurrengo lana markatutako diferentziak itzulzea besterik ez litzateke. Zerbait aurreratzen da horrela, ezta?

Baina zer egin dokumentu biak euskarri informatikoan ez baditugu? Aukera bi daude: edo solaskideari eskatu horrela bidal diezagun, edo dokumentuaren kopia mekanografiatu on-on bat lortu, eta eskaneatu. Hau da, OCR edo ESKANER deritzon aparailu baten bidez, paperean sartzen dugun informazioa, eragiketa informatiko batzuk tarteko, pantailara aterako zaigu. Hortik aurrera, goiko lerroaldean azaldutako teknika berbera erabiliko dugu.

Autozuzenketa eta autotestua

Gorago aipatu dudan Word 6.0 testu-tratamenduak oso aukera interesgarri bi eskaintzen dizkio itzultzaileari: **autozuzenketa** eta **autotestua**. Labur-labur esateko, hauxe litzateke bi funtzio horien funtsa: lehenik sartutako datuak (hitzak, esaldi laburrak...) automatikoki berriro ere idaztea. Bien arteko ezberdintasunik izatekotan, maiztasuna litzateke. Alegia, testu berezi horiek sarri-sarri erabili behar ditugunean, autozuzenketa hautatu; testuok noizean behin baino azaltzen ez bazaizkigu, autotestua aukeratu. Autozuzenketa, hitzak berak dioskunez, automatikoki zuzentzen digu idatzitako testua, idatzi ahala egin ere. Adibidez, "eskualde" idatzi beharrean, "eskulade" jarri badugu, sistemak, besterik adierazi gabe, arteztuko digu, beti ere, aldeztu aurretik agindu hori berri eman badiogu. Hala ere, urrunago eramango dugu aukera hori, eta horra gure proposamena. Pentsa ezazue zuzenketa ortografikoaren ordez, euskara-gaztelania bikote bat dugula. Esate baterako, testua

euskaratzen ari gara, eta behin eta berriro azaltzen zaigu **Departamento de Educación, Universidades e Investigación**. Egin beharrekoa hauxe litzateke: autozuzenketa aukeraren barruan sartu, eta adierazi "h^uis (edo nahi duzuen hitza) idazten dudak bakoitzean, jarri iezadazu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila". Horrela, idazten ari garela, "h^uis" tekleatu, espazio bat utzi eta... voilà, guk nahi dugun itzulpena.

Antzekoa da autotestuaren ahalmena. Hona hemen adibide bat: natur zientzietako testua itzultzen ari gara, eta animalia edo landare zehatz batzuen izenak behin eta berriro agertzen dira (zampullín cuellinegro, pardela cenicienta, lactario de leche ardiente, alfondega...). Zeinek dakizki buruz horrelako izen bereziak? Nik ez behintzat. Autotestuan datu horiek sartuta, aurrerantzean, agian testu berean, agertzen zaizkigunean, tekla bati sakatu baino ez duzue, eta horra euskal ordaina. Benetan diotsuet, azter itzazue bi aukera hauek, eta norberaren erabilerara egokitu. Horretarako, Word gidaliburua edo pantailako azalpenak kontsultatu. Merezidu-eta.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Itzulpen Zerbitzu Ofizialak (IZOk), 1997an, esperientzia berri bati ekingo dio: ordenadorez lagunduriko itzulpena. Teknika hori ez da ezagutzen den itzulpen automatikoa, ez, antzeko zerbait baino. Lehenengo eta behin euskal eta erdal testuak hustu behar dira, itzulpen-unitateak (zentsuzko esaldiak, sintagma...) atera, dagozkien ordainak eman, eta, informatikako makro batzuen bidez, sorburu-unitateak eta xede-unitateak lerrotatu elkarren parean. Behin hori egin ondoren, hauxe da tresna informatiko honen jardunbidea: sistemak itzulgaia irakurtzen du, eta aldeztu aurretik sartutako itzulpen-unitateekin alderatu ondoren, adieraziko digu zein esaldi edo esaldi-zati dugun erabilgarri. Esan beharra dago, itzulgaia, ezinbestez, euskarri informatikoan eman behar dizkiogula ordenadoreari. Edozein administrazioan, askotan heltzen zaizkigu testu berdituak, eta, tresna honen bitartez, lehenik egindako lana erabilgarri egon daiteke edozein unetan.

Bukatzeko, esan nahi nuke, bada, lerro hauetan ahalbide txiki batzuk besterik ez ditudala aipatu, izan ere, gero eta tresna baliagarri gehiago ateratzen ari baitira merkatura. Informatika laguntza ederra da itzultzaileontzat, hori begi bistakoa da, baina, halaber, tentuz erabili beharrekoa, bestela kontu xebera gerta daitezkeelako. Begira bestela zer gertatu zen Euskal Herri honetako aldirikari ofizial batean. Ospitale jakin bateko erizain lanposturako deialdia zen, eta itzultzaileak honela idatzi zuen: "... Ama Birjina ospitaleko erizain izateko lanposturako deialdia...". Zuzentzailearen oniritziarekin jarri, eta adierazitako zuzenketa sartu ondoren, honela argitaratu zen boletinean: "... Ama Birjina izateko lanposturako deialdia...". Informatikaren iratxoak.

Edorta España

HAEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko itzultzailea

1997an, Itzulpen Zerbitzu Ofizialak ordenadorez lagunduriko itzulpenari ekingo dio

Excelentísimo señor ministro, excelentísimos señores pastores.

Mila bederatziehun eta hirurogeitazak. Bazen Espainian estatu osoa paradorez josi nahi izan zuen ministro bat. Urbia ere auke-rako lekua izan zitekeela hartarako eta hara heldu zen jai egun batean, aita Joxe Lasa zena, Arantzazuko frailea, artzainei meza ematen hastekotan zela hain xuxen. Baten batek abixua pasa omen zion aita Joxeri: *Ministroa etorri dela eta meza entzun behar duela*. Hasi meza eta sermoia ere egin behar bada, beti bezala, baina artzain artean ministroa eta...

- *Excelentísimo señor ministro, excelentísimos señores pastores...* Horrela hasi omen zuen hitzaldia fraile agurgarriak.

Nori berea. Ministroari *excelentísimo, txit gorena* euskaraz. Eta artzainei ere bai. Ala ez? Artzainei eskainitako *excelentísimo* ateraldi bitxia? Begirunea? Adeitasuna? Horra jo nahi nuke: gure gizartean erabiltzen ditugun trataerako esamoldeetara, horretan ere gure inguruko hizkuntzetako bezain ondo hornituta gabil-tzanik ezin omen dugu aitortu-eta, edo urriagoak ei gara-eta, era-bileran behintzat.

Hizkuntza bakoitza bere kasa

Adibidez, kalean ze ordu den edo helbideren bat jakin nahi izanez gero, ez diogu galdetzen gu baino zaharrago den ezezagun bati: *"Andrea (edo Jauna), zer ordu den esango mesedez?" Jauna eta andrea* esaten jakinda ere, badakigu eta, ez diogu horrelakorik esango ordua galdetzen diogunari; bai, ordea *"Aizu, mesedez, ordua esango?"*... Begirune osoz, jakina. Gaztelaniaz *"Oiga ¿me dice la hora?"* nahikoa bada ere, *"oiga, señora"* normal-normala da eta askori gustatu egiten zaie hori entzutea. Frantsesez, berriz, *monsieur* edo *madame*-rik gabe ezin dira konpondu.

Geure kasa idazten ditugun eskutitzak hasteko ez dugu halako arazorik. *Miren, Aspaldikoa!, Kaixo Joxe, Ikerne bihotzekoa, Joxe Krua maitea* eta horrelakoekin betetzen ditugu lagun artekoak. Errespetuko andra gizonetakoak, berriz, *Don Julian agurgarria* eta *Jaun* edo *Andre hori*-rekin konpontzen ditugu. Moldatzen gabela alegia. Baina hortik gora jo beharra izanez gero, menderatzen ez edo naturala sentitzen ez dugun zera horretan, lotsa antzekoak menpe hartzen gaitu.

Administrazioan eguneroko lanean geure kasa gutunen bat idazten badugu, nahiz eta lagunartetik kanpoko norbaitentzat izan, aurkitzen dugu formula. Inoren gutunak, ofizioak edo eskabideak, eredia jarria dutela itzultzeko datozkigunean, orduan izaten ditugu komeriak gaztelaniazko pareko formulatara jotzeko lotsor samarrak gara-eta.

Esaterako, nola eman *muy señor mío*? *Oso nire jauna*? Et! Ez *oso* eta ez *nire*: *jaun hori*. Eta nolatan, bada, *oso gure andrea* edo *andre gure-gurea* zein *andre-andre gurea*? *Andre hori*. Ara-

zoa *apreciado Fermín, estimada Aurora* eta *distinguido cliente*-rako ere, lagun ez baditugu. Kikil samarrak izan *Fermin prezia-tua, Aurora begikoa* eta *bezero argitsua* idazteko. Eta ezingo diegu, bada, idatzi *Fermin hori, Aurora hori, bezero hori, hara-kin hori, lurperatzaile hori...*

Hori ez da hitz eta esamolde dotorerik ez dugulako; baditugu-eta. Gainera asmatzen oso errazak dira, edozein trataerakoak ere. Hona batzuk: *Edorta laztana, Lili zuri hori, Gure lilura eta xarma, Gaueko distira, Muxu-muxu alena, Morroskote, Nire azkuretza, Gol txuri-urdina edo Gol txuri-gorria, Sekulako hori, Txirlarritxo...* piloa! *Eizagirre edo Benite adiskidea, On Beremundo, Andre Fermina*, Bizkaitar sendo, bihotz handi-koak, Gipuzkoar garbi eta zintzoak...* Baditugu herri noble, *zintzo, menpetu gabe eta leialak; berorren goitasun, bikaintasun, gailentza eta argitasunak; amarik dohatsuenak; jaun prestu, distiratsu, miresgarriak; andre handi-goiz beteak, zoragarriak, berebizikoak, itzaltsuak; aitonon semeak eta alabak; advocatu videzco, noble, virthute eta hon guziez complituyak...* Zer ez daukagu edo zer ezin dugu asmatu? Eta *txitak*, hauek ere bai. Administrazioan bi dira nagusi: *txit argia* eta *txit gorena*.

Eta "txit"ekin zer?

Araututa (omen) dago trataera administrazio-arloan. Nola edo hala esateko, behetik hasita gora eginaz lehenen *andreak* eta *jauna* ditugu edo gaude, *jaun* eta *andre txit argiak* goian eta *jaun* edo *andre txit gorenak* goi-goian. Ondo goian egon beharko gainera. Izan ere handiena baino handiagorik ez bada eta sendoena baino sendoagorik ere ez, nola demontre izan daiteke *txit gorena*?

Guk geuk aspaldi utzi genituen *txit* guztiak. Eta ez errespeto faltaz, baizik eta uste dugulako *jauna* eta *andrea* duintasun osoaren jabe direla eta edozeini zor zaion errespetoa adierazten dela hitz horiekin. Ez gara bakarrak horretan: Donostian orain bi urte giza eskubideei buruz izandako jardunaldietako txostenean jasota daude partehartzaileen izen abizenak, hitzaldiak, eta abar. Gaztelaniazko aurkezpenetan denak ziren *ilustrisimoak* eta *excelentisimoak*; *txit argiak* eta *txit gorenak* euskarazkoetan. *Monsieur* edo *madame* besterik ez frantsesez; eta *mister* eta *mistress* nahikoa ingelesez. Zein da ondorioa? Gutxienez *jaun txit gorena* izan behar dela *monsieur*-en kategoriara heltzeko? Jai dugu, hortaz *jaun* edo *andre* hutsok. Honetan ere lan nekeza Europan sartze hori!

*Antonio *jauna* eta *andre* Isabel. *Jauna* izenaren atzean, *andre* izenaren aurreran. Hori dio Muxika Plaxidok bere hiztegian. Ikus Orotariko Eus-kal Hiztegia *andre*.

Kaxildo Alkorta

HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko itzultzailea

Arautu behar al dute administrazioek langile publikoen euskararen erabilera?



Maria del Mar Zabala
EUDELeko zuzendaria

Arrazoizkoa ezezik, derrigorrezkoa ere dirudi. Gogorazi behar da Gernikako Estatutuak hizkuntza ofizialtzat duela euskara, eta "hizkuntza bien erabilera bermatzea eta, halaber, bere ezagupena ziurtatzeko beharrezko neurriak eta baliabideak bideratu eta arautzea" agintzen diela administrazio publikoari. Bestalde, 1982ko Legeak, Euskararen Erabilera Arautzen duenak, Estatutuak agindutakoa zabaldu eta zehazten du, eta, alor honi dagokionez, lan garrantzitsua ematen die administrazio publikoari. Herri-agintariak bermatu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko administrazioekin eta beste edozein organo edo erakunderekin harremanak, euskaraz zein erdaraz, ahoz edota idatziz, izateko eskubidea. Horrek guztiak barne-neurriak hartzea eskatzen du. Ez da, beraz, politikoen ardurak bakarrik; Euskal Autonomia Erkidego osoko administrazio guztietan lanean diharduten teknikariena ere bada, neurri handi batean.

Mikel Illarregi
UEMAko lehendakaria



Gaurko egoera hartu beharko dugu oinarritzat lehenik. Egun, oro har, erdaraz funtzionatzen duen administrazio publikoa dugu, eta, gainera, legedi desberdinen menpe dago. Lehenik eta behin borondate politikoa behar da, hau da, euskara erabiltzea erabaki behar da. Hori horrela izanda, arautzeko planifikazio bat egitea nahitaezkoa da; alferrikakoa gerta baitaiteke herritarren hizkuntz eskubideen aldarrikapena onartzea besteren ezean.

Beste alde batetik, orain arte ezagutza-maila bultzatu da, erabilerari behar bezalako garrantzirik eman gabe. Inbertitu beharreko diruari benetako etekina atera behar diogu. Arautzea, besteak beste, administrazioa langileari bere eguneroko jardueran zein hizkuntzatan (euskaraz) egin behar duen esatea da. Jarrera neutralak, pasiboak, ez dira gure bidearen lagunak, gaztelaren alde jokatzeko baitute. Euskara lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza bihurtu behar dugu, eta, horretarako, erabilera arautzea besterik ez da gelditzen.

Iñaki Agirreazkuenaga
Administrazio zuzenbideko irakaslea EHUn

Lehenik, erabileraren bi alderdi bereiztu behar dira. Bata, herritarrekiko harremanetan gertatzen dena; eta horretan, herritarren hizkuntz eskubideek dute lehentasuna, herritarrek berak aukeratuko duelako harreman hori zein hizkuntzatan egingo duen. Dena dela, hori benetan bermatu beharra dago administrazio guztietan, eta, horretarako, administrazio bakoitzak plangintza zehatza onartzerakoan, lehenik eta behin, herritarrekiko harremanetan dagoen funtzionario orori ezarri beharko dizkio hizkuntz eskakizunak.

Beste alderdia administrazioa barne harremanetan gertatzen dena da; alegia, euskara lan hizkuntzatzat harturik. Zenbait administrazioak arautu du dagoeneko arlo hori (ikus, besteak beste, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Foru Araua, edo Usurbil zein Orioko udal ordenantzak), eta baita eredu arras interesgarriak eskaini ere.

Barne erabileraren arlo horretan hiru puntu nagusi azpimarratuko nituzke. Lehenik, administrazio bakoitza dela bere barne arauak egiteko organo eskuduna. Bigarren, derrigorrezko hizkuntz eskakizunak ezartzerakoan lana euskaraz egitea ahalbidetuko lukeen zerbitzua ezarri beharko litzatekeela. Azkenik, funtzionarioek euskaraz lan egiten badute, eta egindakoa zinegotzietan, goi-mailako funtzionarioei eta politikoei itzuli behar bazaie, inertiak eta ohiturak lana gaztelaniaz egitea eramango ditu. Zuzenbide konparatuak kargu politikoei hizkuntz ofizialen ezagutza exijitzeko ereduak eskaintzen badizkigu ere, nire uste apalean, gure gizartea, zoritxarrez, ez dago, oro har, horrelakoetarako prestaturik.

Hala ere, azken gai horri buruz hiru talde bereiz daitezke: lehendabizi, herritarrek zuzenean aukeratzen dituzten kargu politikoak. Horien kasuan ez dago juridikoki hizkuntz eskakizunik ezartzerik. Bigarrenez, izendapenezko kargu politikoak ditugu. Hor bai, legez ezar liteke hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezaguera-maila. Hirugarren taldea, azkenik, goi-mailako funtzionarioek osatuko lukete. Badirudi, goi-mailako horiek, funtzionario diren aldetik, hizkuntz eskakizuna ezarrita eduki beharko luketela; hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoan badaude, egon, legez funtzionarioak direnak eta inolako hizkuntz eskakizunik ez dutenak. Bestalde, garrantzitsua litzateke erantzukizunaren arabera jokatzeko, izan ere Zuzenbide konparatuan logikoa dirudi zenbat eta altuagoa izan funtzionarioaren maila, orduan eta ezagutza-maila handiagoa eskatzeak.





Javier Moraza
Unidad Alavesako
parlamentarioa

Administrazio publikoek, euskararen eta gaztelaren ofizialtasunari jarraiki, aintzat hartu behar dituzte euskaldunen zein gaztelaradunen eskubideak. Eta hori lortze aldera, bi hizkuntza ofizialen beharra duten lanpostuen definizioa egin behar da.

Unidad Alavesaren ustez, lanpostu elebidunek gizartearen eskaerari erantzun behar diote. Eskaera hori eragin-kortasunaren printzipioari lotuta dago, noski, ez bailitzateke zentzuzkoa izango leihatila elebidunak jartzea euskaldunik ez dagoen tokietan. Argi geratu behar da, beraz, egungo benetako erabilerari erantzuteko beharraz ari garela. Eta gaztelaren edo euskararen erabilera zein den jakiteko ez gara soil-soilik eroldan oinarritzen; aitzitik, inkesta soziolinguistikoko serio batek eman behar du horren berri.

Bestalde, Kataluniako eredia geureganatzeak ez liguke batere onik egingo. Hango administrazioak katalanera bakarrik erabiltzeko "gomendatzen" die langile publikoei, eta zigortu egiten du gaztelaren erabilera. Halako ereduok geurera ekarrita, hizkuntz politikak ez lioke gizartearen nahiari erantzungo, eta gainera, administrazioa bihurtuko luke euskalduntzearen buru.

Maitena Etxebarria
EHUko Kultura Hedakuntza
eta Unibertsitate Zabalkun-
tzarako errektoreordea



Nire ustez, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legearen 14. artikulua (Bigarren Idazpuruaren Lehenengo Atalburua) xedatzen duenez, administrazio publikoak arautu behar du langile publikoen euskararen erabilera. Aipatutako artikulua, hain zuzen ere, honako hau esaten du: "Lege honen 6. atalean aintzertzen diren eskubideak egite-ratu daitezten, herri-agintariek Euskal Herriko Autonomia Elkarte-ko Herri-Arduralaritzari atxikitako lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dituzte".

Legea egin zen garaian, 14. artikulua aurkako errekurtsoa jarri zen. Dena den, Konstituzio Epaitegiak argi eta garbi utzi zuenez, Euskararen Legearen artikulua errespetatu egiten zuen Konstituzioa. Harrezkerotik, artikulua alde batean baino ez da garatu. 250/86 Dekretuaren Bigarren Erabaki Gehigarriaren arabera, neurriak hartuko dira, EAEn kokaturiko Estatuko administrazioan euskararen erabilera normalduz joateko. Halaber, dekretu horrek xedatzen du Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin batera, lanpostu guztiei dagozkien hizkuntz eskakizunak zehaztu behar dituela.

Aurrekoaren ondorioz, Hizkuntz Eskakizunen Dekretua daukagu. Beronek xedatu eta zehazten ditu EAeko administrazio publikoko lanpostu bakoitzari dagozkion euskararen ezagupen-mailak. Azkenik, esan beharra dago funtzio publikoa euskalduntzeko pisua HAEE-ri eta Hizkuntz Politikarako Sailordetzari dagokiela. Honako honen egundoko garrantzia dauka euskararen normalkuntzaren bidean.

Olatz Osa
EKBko idazkari teknikoa



EKBren iritziz, administrazio publiko guztiek arautu beharko lukete euskararen erabilera; eta, orain arte egin ez bada ere, Ertzantza, Osakidetza, erakunde publiko autonomiadun, administrazioaren menpeko enpresa eta Estatuaren administrazio periferikoetara ere zabaldu beharko litzateke plangintza. Baina ez bakarrik langileei begira, egunerarte ezarri den legez; goi-karguak eta politikoak ere euskalduntzea eta beren lan jardunean euskara erabiltzea ezinbestekoa da, administrazioan erabilera hori benetan arautuko bada. Azken batean ez da zilegi arduradun politikoek inolako hizkuntza eskakizunik ez izatea, langileei ezartzen zaizkien bitartean; politikoek, gainera, eredugarri izan beharko lukete administrazio bakoitzeko langileentzat eta baita gizarte osoarentzat ere.

Erabilera arautzeak ez du esan nahi hizkuntz eskakizun jakin bat gainditzea, euskaraz lan egitea baizik; eta, horretarako, neurri zehatzak ezarri beharra dago: lan-kateak planifikatu, trebakuntza programak garatu, helburu eta epe zehatzak aukeratu, eta erabilera bermatzeko baliabideak bideratu.

Arantxa Aurrekoetxea
HPSko Herri-Administrazioetan
Hizkuntza Normalizatze-
ko zuzendaria



Badira urte batzuk administrazioan euskararen erabilera normaltzeko prozesuari ekin zitzaioela. Lehendabizi jarritako helburua administrazioetako langileak euskalduntzea izan zen orokorrean; hala eta guztiz ere, euskararen erabilera areagotzeko saio aipagarriak egin dituzte administrazio batzuetan.

Hasitako prozesuarekin jarraitzeko, berriz, laster baruru emango da II. Plana arautuko duen dekretua, eta orain arte administrazio batzuen ekimenaren pentzutan zegoen erabilera administrazio guztietara zabaltzea izango du helburu.

Adostutako oinarriak kontutan izanda, administrazio bakoitzak bere hizkuntz helburuaren arabera plana onartu beharko du -administrazio atal baterako, birako edo guztietarako-, administrazio barrurako lan-jardunak, herritarrekiko harremanak eta bere erakundeetakoak euskaraz izan daitezten.

Bestalde, planak ardatz nagusi bi izan beharko ditu: bateko, parte-hartzailearen adostasuna eskuratzea, bai langileena bai agintariena; besteko, planean parte hartuko dutenen elkarren arteko komunikazioa, gabeziak non dauden eta nola konpon daitezkeen zehazteko eta gaztelania erabiltzeko ohiturak astintzeko.

Betebeharreko helburuak, berriz, mailakatu eta epekatu egin beharko dira, lorgarriak izan daitezten benetan, eginkizun errazenetik zailenera eta orokorretik zehatzera jotzeko bidea eginez.

Betetzeko moduko helburuak ezarri ondoren, helburuok lortze aldera administrazio bakoitzeko kideen konpromezuak emango dio seriotasuna eta sinesgarritasuna tokian tokiko planari.

HAEEn helbide berria: www.ivap.es

HAEek egoitza berria ireki du, unibertsoetik at. Espazio-denboraren kurbaduran sumatutako zirrikitu bat aprobetxatuz, fisikoki inon ere ez dagoen bulego birtuala eraiki du.



J.R.I. funtzionario internauta arruntak bere PCa piztu eta modem-a konektatu zuen, bere lanerako baliagarri izan zitezkeen ikastaroen nondik-norakoak jakin ahal izateko. Ohiko moduan, dei telefoniko baten bidez Internet-en murgildu zen. Eguneroko bezala ere, hotzikarak sentitu zituen pantaila pixkanaka-pixkanaka irudiz eta letraz betetzen hasi zenean. Segundotik segundora byte-ak atsedetik gabe iristen ziren, tropelean. Baina egun horretan ez zen egunerokoa gertatu behar. Ez zekien nondik bilatzen hasi. Hatzamar urdu-riak teklatuan dantzan jarri zituen, eta xaguan mugimendu azkarrez informazio batetik bestera salto egiten hasi zen. Ideia berriak buruan nahasten eta pilatzen hasi zitzaizkion, nolabait erdi zorabiatuak.

Eta laster galdu egin zen, munduko konputagailu urrunetan bere pausoen aztarna ixila utziz. Ez zekien nola bueltatu. Han hemenka ibili zen, helburu jakinik gabe, tximeleten antzera edo, hobeto esanda, mozkor triste baten moduan. Bilaketa-zerbitzariak ez zebiltzan ondo, trafiko gehiegi, nonbait, eta interesatzen ez zitzaion informazioak behin eta berriro itotzen zuen. Goragalea etorri zitzaion. Eraikuntza-materialen katalogo amai-gabea, Bengt Olsen doktorearen tesi zabalak pinguinoen ugalketari buruz, Saba-ko Erreginarene istorio iluna, Kanadako Itaso Kontseiluaren aholkuak, "Defecator II" pelikula berria, Pamela Anderson-en argazki lizunak...

Izerdi patsetan blai, arnasa hartu eta aurrera jo zuen. Lisa Nilsson-en azken kantuak, frantsesa ikasteko ikastaro trinkoak Bordelen, haur kaukasoidiak adoptatzeko formularioak, Oua-

gadougou hiriko ospitaleko langileen aurpegi alaiak emakume zuria agurtzean, ziliborkeria eta folklorismoa sendatzeko formula ahaztua, Talibanezikoko elkartasuna, estilo-liburu polemikoak...

Bertigoak begiak itsutu zitzaion, eta bere jefek harrapatuko zuela pentsatze hutsak bihotzaren taupaden erritmoa ikaragarri azeleratu zion. Pentsamenduen haria erabat hautsita, Internet-eko uretan nabigatzen segitu zuen, gero eta urrutiago, gero eta ikaratuago. Etsita eta lur jota, ia-ia negarrez hasi zen.

Pentsamenduen haria erabat hautsita, Internet-eko uretan nabigatzen segitu zuen, gero eta urrutiago, gero eta ikaratuago

Eta itxaropena erabat galduta zuenean, porrotaren itzala gainean nabaritzen hasi zenean, bat-batean argia ikusi zuen. Hasieran arrasto gorri batzuk zirenak, handik gutxira letra eta mezu bihurtu ziren. **I** eta **V**, **A** eta **P**, eta beraiekin batera itzulpen, argitalpen eta ikastaroei buruzko informazio zehatz eta preziatua iritsi zen. Lurrera belauniko erori eta garrasika hasi zen. Hainbeste denbora igaro ondoren, J.R.I. funtzionario internauta arruntak hasieratik bilatutakoa aurkitu zuen azkenean, eta berriro ere bere eserlekuan ezarrita, esku dardartiaz eta begiak malkoz beterik,

bere agenda elektronikoa pertsonala ireki eta helbide magikoa idatzi zuen arrapalada bizian, betirako eskuragarri izateko: www.ivap.es.

Luis Elizondo
HAEko Prestakuntzako teknikaria

Euskaltzaindiaren araugintza

Iragan urrian Euskaltzaindiak II. Jagon Jardunaldiak antolatu zituen Tolosan. Bertan, Miren Azkarate andreak orain arte Euskaltzaindiak eman dituen arau batzuen gaineko zenbait zalantza argitu nahi izan zituen. Hona hemen, labur-labur, arauotako puntu ilun horietako batzuk eta euren irtenbideak.



■ Maileguak

Erdaraz "x" idazten denetan, euskaraz bokal artean "x" idatziko dugu, eta kontsonante aurrean "s". Beraz, *existitu*, baina *estra*.

■ Hau guztia

Forma hau deklinabide guztietan erabili beharko genuke: *horietan guztietan*, *horietan guztiengan*, *bide hartan guzt(t)ian*.

■ Zenbakien idazkeraz

Ondorengoak horrela idatzi eta irakurri behar dira:

Idatzi	Irakurri
<i>1 metro soka beltza</i>	<i>metro bat soka beltza</i>
<i>2 kilo mandarina</i>	<i>bi kilo mandarina</i>
<i>1,5 kilo madari</i>	<i>kilo t'erdi madari</i>

■ Nonahi, non-nahi

Lehen osagaia "n"-z, "t"-z edo "k"-z bukatzen bada (*non*, *nondik* edo *zenbat* bezalakoetan), hitz batean (*nonahi*, *zenbanahi*, *nondinahi*) edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi*, *zenbat-nahi*, *nondik-nahi*) idatz daitezke.

■ Bat eta batzuk-en deklinabidea

Bat bakarrik agertzen denean eta *beste* hitzaren agerraldi baten eraginpean dagoenean, gaur egun ere forma mugatua gertatzen da, batez ere Hegoaldean; eta badirudi horrelakoak gomendatu

behar direla euskara baturako (*batarengan eta bestearengan*, *batari nahiz besteari*, *batarekin eta bestearekin*).

■ Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri

Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du. Badi-rudi, gainera, egokia litzatekeela lerro-amaieran bokal-multzorik ez haustea (Ez: *du/ela*, *gau/ean*. Bai: *due/la*, *gauean*). Bestela esanda, lerro-hasierako hitz haustia kontsonantez hastea komeni da, *h*-ak barne (*be/rre/hun*, *le/hia*).

■ Partitiboaren erabilera okerra

Gaur egun, kalkoak eginez, ezezkotasunak daraman mugagabe kutsua galtzen da kasurik gehienetan: edo plurala barra-barra erabiltzen da, edo singular mugatua. Beraz, goraki esan behar da ezezko perpaus gehien-gehienek dutela partitiboa.

■ Arazi

Aditz-erroaren formari begiratu behar zaio (28. araua): *ager* (*agerrarazi*), *sor* (*sorrarazi*).

■ Hitz elkartuen osaera eta idazkera

Letra larriz idatzitako hitz-elkarteetan marrarik ez erabiltzea gomendatzen da (*Hezkuntza Saila*).

■ Orduak nola esan

Arauan hauxe esaten da: orduei pluraleko kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa. Beraz, *15:00etan*, baina *13:07an*.

■ Data nola adierazi

Hona hemen Euskaltzaindiaren gomendioa: *Durango(n)*, *1983ko martxoaren 7a(n)*.

■ Zenbait aditzen erregimena

Lagundu aditza nor-nork eta nor-nori-nork egin daiteke, baina ez dago gomendatua semantikoki bereiztea "ayudar" eta "acompañar" adierazteko. Iparraldean nor-nork bezala erabili da bi adieretan, eta Hegoaldean nor-nori-nork bezala.

■ Bihurtu

Ondo daude ondorengoak: *emakume eder(a) bihurtu* edo *bihotz sendoko gizon(a) bihurtu*. Gaizki, ordea, segidakoa: *bihotz sendoko gizon bat bihurtu*.

54. arauan *batez beste* gomendatzen da *bataz beste*-ren ordez.



Normas de Conducta en las Instituciones Públicas

Primer informe de la Comisión de Normas de Conducta en las Instituciones Públicas.
Lord Nolan
HAEE
Oñati, 1996
122 orr.


Txosten hau Erresuma Batuan eta Erresuma Baturako egin izan arren, zalantzarik gabe interesgarria izan daiteke, eta izango da, Europako beste herrialde batzuetarako ere; izan ere, azken urte hauetan hor-hemen behin baino gehiagotan jarri da auzitan (adiera bietan) erakunde publikotako goi-karguen eta politikoen jokoera. 1994an Erresuma Batuko lehen ministroak berariaz sortutako batzorde bati txostena prestatzeko agindua eman zion. Batzordeak bi helburu nagusi zituen: alde batetik, kargu publikoek bete behar dituzten arauak aztertzea; eta,

bestetik, beharrezkoa izanez gero, arauok aldatzeko proposamenak egitea, funtzio publikoaren jardura zuzena bermatzeko. Kontu ipini liburu berri honi, hizpide zabala izango da eta.




Altos Cargos y Directivos Públicos
Jiménez Asensio, R.
HAEE
Oñati, 1996
342 orr.

Goi-karguei eta zuzendari publikoei begiratuta, askotan lan nekeza izaten da politikoen eta administraziooko funtzionarioen arteko muga zehatz-mehatz bereiztea. Horrelakoetan, honako galderak etortzen zaizkigu burura: zer da goi-kargu bat? Zer, zuzendari publiko bat? Liburu honetan Jiménez Asensio jauna kontu horiek guztiak argitzen saiatzen da. Liburu hiru zati nagusitan dago banatuta: lehenengoan, gaiari buruz Konstituzioak dioena jaso, eta kontzeptuak definitzen ditu egileak; bigarrean, zuzendaritza-jardunen erregimen juridikoak aztertzen ditu; hirugarrean, etorkizunerako aurreikuspenak jorratzen dizkigu; eta epilogoan, azkenik, PPko gobernuak administrazio-ko goi-mailak berritzeko hartu dituen lehen neurrien berri ematen digu.




Flexibilidad en la gestión de personal en la administración pública
Pérez Grande, M.A.
MAP
Madrid, 1995
143 orr.

ELGEren (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) zuzendaritzapean, 1988an aditu talde batek batzar bat osatu zuen, administrazio publikoko langileen kudeaketa zelan malgu zitekeen aztertzeko. Urte berean, ELGEko kideen konferentzia bat antolatu zen, gai horretan sakontzeko asotan; eta, hain zuzen ere, konferentzia hartan aurkeztutako zenbait lan dira oraingoan liburu honetan bildutakoak. Argitalpenean, hainbat herrialdetan izandako esperientziak jasotzen dira, hala nola, Suedian, Norvegian, Holandan, Kanadan, Japonian, Frantzian, Australian eta Irlandan. Irakurlea aise konturatuko da, gaia toki guztietan bera izan arren, ikuspuntuak eta irtenbideak desberdinak direla; azken batean, horixe baitzen topaketaren helburua: ELGEko kideen arteko esperientziak elkarri trukatzeko.



La ética en la administración pública
González Pérez, J.
Civitas S.A.
Madrid, 1996
143 orr.

Liburuak hiru zati ditu: lehenengoan, administrazio publikoan erabili beharreko etika aztertzen da; bigarrean, jokabide etiko hori bermatzeko neurriak; eta hirugarrean, zigorrak. Egileak dioenez, etika administraziooko langile guztiei eskatu beharreko zerbait da, edozein delarik ere langilearen eginbeharra. Etika horren barruan, betebeharrak ugaritu dituzten administraziooko langileak, bai kargua hartzerakoan (ondasun eta jardueren aitortpena, ondasun eta eskubideen aitortpena...), bai lanean dirauen bitartean (bateraezintasuna, enpresa jabea edo partaidea izateko debekua...), bai kargua uzterakoan. Emaiozu begiradaxo bat. Interesatuko zaizu.



Régimen de distribución de competencias entre el Estado y las comunidades autónomas
Pérez Grande, M.A.
MAP
Madrid, 1994
263 orr.

Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko kompetentziei buruzko gaia guztion ahotan dabil egun hauetan; hala eta guztiz ere, gutxi askok daki, seguru asko, zertan den kompetentzia horien banaketa. MAPeko argitalpen honetan autonomia erkidego guztien kompetentziak aztertzen dira, eta hori guztia, lau atal nagusitan. Lehen zatian, administrazio publikoaren araubidea, jardura eta erantzukizuna aztertzen dira. Bigarrean, funtzio publikoa. Hirugarrean, nahitazeko desjabetzea. Eta, laugarrean, administrazio-emakidak eta administrazio-kontratuak. Liburu gida moduko bat da, arlo bakoitzean konstituzio arauak nola ezarri diren ikusteko, eta baita eztabaidagai izan diren jardueren gainean Konstituzio Auzitegiak zer erabaki hartu duen jakiteko ere.

Hitz gezidunak

Amosfera- geraza	Biak... lepoa	Talde handi	Orotara	Toka, badazu
Libertatea	Maskoerdun mota	Likido masa txikia	Elan bider sei	Nitrogenoa
Zorituarez				500
Harnu, handuste				Arloraburu
Ez eme		Eregezale ingelesek Italiko telebista		
Biak... ateak			Gaino Barazki mota	Eudalaraz eta kino!
Kortezubi- ko auzoa		Ahalmena		
Esan iezaitzu		Ebakuntza		
Frantziako autoetan				Hizki baten izena Aitorpena egin
Zantza simetiko		Toka, banakiz Kontso- rantea		
Hitz grekoa			Irindioa	Frantsu mota
Baldin- tzetan		Istorioa Emakume datorra		
Izaki ispirituala	Azemia Rubidura	Bikako herria 52		Röntgen Behora hero egun
Lehen bikotia			Moztu Tosa	
			Obolza	

LUMA

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/42 91 66
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herriaren Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/41 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordetza: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 84
- UZEI: 943/47 33 77

Galdetara - s o r t a

- 1 "Talibanak" entzun, eta zein herri datorkizu burura?
 - A Ukraina
 - B Mazedonia
 - C Afganistan
 - D Mongolia
- 2 EEBBetako lehendakaritzarako hauteskundeetan zein izan da hautagai "erreformista"?
 - A Tom Dewey
 - B Ross Perot
 - C Jack Kemp
 - D Robert Dole
- 3 Orain dela gutxi Nueva Izquierda izeneko alderdi politiko berria sortu da. Nor izendatu dute idazkari nagusi?
 - A Diego López Garrido
 - B Cristina Almeida
 - C Francisco Mojedano
 - D Julio Anguita
- 4 AZTI, A.B. enpresa publiko bat da ikerketa ozeanografikoaz arduratzen dena. Zein herritan dago enpresa hori?
 - A Mutrikun
 - B Deban
 - C Mundakan
 - D Sukarrietan
- 5 Zefalea izanez gero, non duzu mina?
 - A Artikulazioetan
 - B Buruan
 - C Hortzetan
 - D Bizkarrean
- 6 Hegoaldeko hemisferioan hauetako zein tropiko aurkituko duzu?
 - A Kantzer
 - B Orion
 - C Kaprikornio
 - D Aries
- 7 Zein mendetan izan zen Luteroren erreforma protestantea?
 - A XVI
 - B XV
 - C XVII
 - D XIV
- 8 Nork irabazi du azkenengo *Planeta* literatur saria?
 - A Fernando Delgado-k
 - B Fernando Schwartz-ek
 - C Terenci Moix-ek
 - D Juan Alberto Belloch-ek
- 9 Montehermoso jauregia ikusteko nora jo behar duzu?
 - A Oñatira
 - B Bergarara
 - C Elorrriara
 - D Gasteizera
- 10 Zein estilotakoa da Baionako Santa Maria Katedrala?
 - A Erromanikoa
 - B Gotikoa
 - C Neogotikoa
 - D Errenazentista

G o i t i b e h e r a

Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondorengo hitzaren anagrama da. Zer da anagrama bat? Hitz baten letra beste era batera ordenatu ondoren lorturiko hitza: naiz/zain/zina.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11

LUMA

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11

LUMA

1. Abizenak.
2. Munduratu, umea mundura ekarria.
3. Gaisotua.
4. Denbora unitatea.
5. Zuhaitz mota.
6. Modua.
7. Nafarroako herria.
8. Irri.
9. Albistea.
10. Nazioa.
11. Landa giroko etxea.

1. Aukera.
2. Gauzak edo pertsonak dauden moduak.
3. Pluralean, etorkizuna.
4. Zoroak.
5. Moduak.
6. Areago.
7. Interjekzioa.
8. Afrikako estatua.
9. Jarri.
10. Urdeak.
11. Zangoetako.

S o l u z i o a k

G o i t i b e h e r a

Galdere - sorta
0c/0b/0a/0p/0r/0c/0a/0r/0p/0r

11	B A S E R R I A
10	A B E R R I A
9	B E R R I A
8	B A R R E
7	B E R A
6	E R A
5	A R T E
4	U R T E A
3	E R I T U A
2	E R D I T U A
1	D E I T U R A K

●	B I A ● T A V L A
●	A R I M A ● E T E N
●	● L A T E R R I A
●	B A ● D E R I O ● R
●	● R O ● K O N T U A
●	● T E R G A L ● I R ●
●	● F R ● B A N A U K
●	● E S A I E Z U ● B E
●	● O M A ● A H A L A
●	● A T A R A ● E R I ●
●	● A R ● T O R I A K
●	● A R R A N D I T S U
●	● T A M A L E Z ● D
●	● A S K A T A S U N A
●	● E ● S ● S ● G ● B

Hitz gezidunak



Zorionak!

o



1981



1982



1983



1984



1985



1986



1987



1988



1989



1990



1991



1992



1993



1994



1995



1996

15 urte zure eskubideen alde.

KONTSUMITZAILEAREN ESTATUTUA

1981ean zure eskubideak arautu ziren. Osasuna babesteko eta segurtasuna izateko eskubidea. Kontsumitzaileen interes ekonomikoak babesteko eskubidea. Kontsumo arloan informazioa eta heziketa izateko eskubidea. Kontsumitzaileen erakundeak sortzeko eskubidea, baita entzunak izateko eskubidea ere. Babes juridikoa izateko eta kalteen ordaina jasotzeko eskubidea.

1981etik ari gara lanean kontsumitzailearen eskubide guztiak garantizatzeko. Eta hala jarraituko dugu, denon artean gero eta Euskal Herri modernoago eta lehiakorragoa lortzeko.



MERKATARITZA, KONTSUMO ETA
TURISMO SAIA

Zenbaki honetako 6. orriko ereduari begira akats batzuk sartu ditugu ondorengo dekretuan. Aurkitu huts horiek (Euskaltzaindiaren gomendioak, dekretu-ereduarekin bat ez datozen formulak, hurrenkera-ara-
zoak, falta den informazioa...), eta zuzendu.

KULTURA SAILA
3731

Euskararen Aholku Batzorde Osoko bokalak izendatzeko uztailaren 16ko 157/1996 DEKRETUA.

Uztailaren 16ko 183/1996 Dekretuaren bidez aldatu den Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko Ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren 4.1. atal-
lak xedatutakoaren ondorioz, Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde
Osoaren bokalak Dekretu bidez izendatuko dira, Kultura Sailburuaren pro-
posamenez.

Ondorioz, Dekretu horretan aurrikusitako hautaketa eta proposamenak egi-
nak izan ondoren, eta Jauriaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu eta gero,

Ondoren zerrendatutako pertsonak Euskararen Aholku Batzordearen Ba-
tzorde Osoko bokal izendatzea xedatu dut:...

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau euskal herriko agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta bihara-
munean jarriko da indarrean.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkariaren izendapena, Kultu-
ra sailburuak Mankomunitateko organo erabakitzaileak proposatutako or-
dezkariaren berri jaso ondoren egingo da.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko uztailaren 16.

José Antonio Ardanza Garro
Lehendakaria

M.^a Carmen Garmendia Lasa
Kultura sailburua

A R I K E T A K

E U S K A L T Z A I N D I A

Irakurri Euskaltzaindiaren gomendioak (23. orr.), eta aukeratu erantzunik egokiena.

- 1 a) Bilera goizeko 09:00an hasi, eta eguerdiko 11:30an amaitu zen.
b) Bilera goizeko 09:00tan hasi, eta eguerdiko 11:30etan amaitu zen.
c) Bilera goizeko 09:00etan hasi, eta eguerdiko 11:30ean amaitu zen.
- 2 a) Azalpen **guzti horiekin** bere burua zuritu nahi izan zuen sailburuordeak.
b) Azalpen **horiekin guztiekin** bere burua zuritu nahi izan zuen sailburuordeak.
c) Azalpen **horiek guztiekin** bere burua zuritu nahi izan zuen sailburuordeak.
- 3 a) Zinegotzi hori **esperientzia** handiko gizona da horrelako kontuetan.
b) Zinegotzi hori **experientzia** handiko gizona da horrelako kontuetan.
c) Zinegotzi hori **ezperientzia** handiko gizona da horrelako kontuetan.
- 4 a) Aspaldian ez **nuen** entzuten horrelako **hitzik**.
b) Aspaldian ez **nituen** entzuten horrelako **hitzik**.
c) Aspaldian ez **nituen** entzuten horrelako **hitzak**.
- 5 a) Elgeta, 1996ko abenduaren 11an.
b) Elgeta, 1996ko abenduak 11a.
c) Elgeta, 1996ko abenduaren 11.
- 6 a) **Garraio eta Herrilan-Saileko** arduradun batzuk etorri zaizkigu bisitan.
b) **Garraio eta Herrilan Saileko** arduradun batzuk etorri zaizkigu bisitan.
c) **Garraio- eta Herrilan-Saileko** arduradun batzuk etorri zaizkigu bisitan.
- 7 a) Gure administrazioan, beste **non-nahi** bezala, langile finak eta arduratsuak dira nagusi.
b) Gure administrazioan, beste **nonnahi** bezala, langile finak eta arduratsuak dira nagusi.
c) Gure administrazioan, beste **non nahi** bezala, langile finak eta arduratsuak dira nagusi.
- 8 a) **Asioma** da frogarik gabe onartzen den printzipio nabaria eta frogaezina.
b) **Aksioma** da frogarik gabe onartzen den printzipio nabaria eta frogaezina.
c) **Axioma** da frogarik gabe onartzen den printzipio nabaria eta frogaezina.
- 9 a) Lanpostu horretan hiru urte eman ondoren **itzultzaile trebe bat** bihurtu zen.
b) Lanpostu horretan hiru urte eman ondoren **itzultzaile trebe batean** bihurtu zen.
c) Lanpostu horretan hiru urte eman ondoren **itzultzaile trebea** bihurtu zen.
- 10 a) Areto batean **bilduarazi**, eta banan-banan **sartuarazi** gintuzten azterketa-gelara.
b) Areto batean **bilarazi**, eta banan-banan **sarrarazi** gintuzten azterketa-gelara.
c) Areto batean **bilduarazi**, eta banan-banan **sartarazi** gintuzten azterketa-gelara.
- 11 a)..... le-
ihatila.....
b)..... lei-
hatila.....
c) leih-
atila.....
- 12 a) **Batek edo bestek** irabazi, berdin zait.
b) **Batek edo besteak** irabazi, berdin zait.
c) **Batak edo besteak** irabazi, berdin zait.
- 13 a) Alferra da oso: astean bitan ez da etortzen lanera, **bataz beste**.
b) Alferra da oso: astean bitan ez da etortzen lanera, **batez beste**.
c) Alferra da oso: astean bitan ez da etortzen lanera, **batez-beste**.

Gramatika saileko artikuluan egileak dio nor-edo-noren edo zer-edo-zeren berri eman gura dugunean inolako aurre-testu barik, esate baterako kontakizun baten hasieran edo gai-aldatzean, hasten garela lehenik gunea (pertsona edo gauza) aipatuz, bat edo batzuk determinatzailea lagun duela, eta, ondorik, erlatibo bidezko ezaugarria(k). Hona hemen kontakizunetako edo eguneroko bizitzako adibide pare bat:

- 1.- Auto bat erosi dut 4.000.000 pezeta baino gehiago balio duena.
- 2.- Bazen behin errege bat alaba bat zeukana eta anitz maite zuena.

Adibideotan ageri denez, gunea (Auto, errege) jar daiteke aditzaren aurrean zein atzean, eta, azkenik, erlatiboa(k). Hurrengo egituraren batean daude emanak goiko adibideok:

- 1.- [GUNEA + bat/batzuk] + aditza + [erlatiboa(k)]
- 2.- aditza + [GUNEA + bat/batzuk] + [erlatiboa(k)]

1 Ariketa

Hurrengo esaldiak jar itzazu hurrenkera egokian, goian emaniko bi estrukturetariko baten arabera:

- a) Alkateak denden ordutegia arautzen duen dekretu bat eman du.
-

- b) Txakurrak kalean aske ibiltzea debekatzen duen ordenantza bat atera du Obabako alkateak.
-

- c) Txakurrek txiza eta kaka eginez gero kalean jabeek garbitu beharra dutela dioen ordenantza atera du Obabako alkateak.
-

- d) Uraren prezioa arautzen duen ordenantza bat atera du Obabako alkateak.
-

2 Ariketa

Itzul itzazu euskarara gaztelaniazko ondoko esaldiak (itzulpenok pentsatuta daude erlatibo bidez emateko, gorago adieraziriko segida egokian. Jakina, bestela ere eman daitezke itzulpenok, eta anitzetan, modu egokiagoan eman ere).

- a) Tenemos un consejero que viene en bici al trabajo.
-

- b) En Obaba hay un concejal que es un cazador empedernido.
-

- c) El ayuntamiento de Obaba tiene un edificio que se construyó el año 1200.
-

- 2.4. El lehendakari es una persona a la que le gusta pasear con su familia.
-

- 2.5. El enterrador de Obaba es un funcionario que coge vacaciones cuando le da la gana.
-

S O L U Z I O A K

ADMINISTRAZIO-IDAIZKIAK

KULTURA SAILA
3731

157/1996 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Euskararen Aholku Batzorde Osoko bokalak izendatzeko. (**Hauxe da izenburuak idazteko eredu estandarra**)

Uztailaren 16ko 183/1996 Dekretuaren bidez aldatu den Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren (**hilabeteak, Euskaltzaindiaren arabera, letra txikiz**) 18ko 156/1996 Dekretuaren 4.1. atalak xedatutakoaren ondorioz, Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde Osoren bokalak Dekretu bidez izendatuko dira, Kultura sailburuaren (**karguak, Euskaltzaindiaren arabera, letra txikiz**) proposamenez.

Ondorioz, Dekretu horretan aurrikusitako hautaketa eta proposamenak eginak izan ondoren, Kultura sailburuaren proposamenez (**noren proposamena den esatea behar-beharrezkoa da**) eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko uztailaren 16an egindako bilkuran (**azalpen-zati honetan bilkura noiz egin den aipatu behar da**) aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT: (**hona hemen xedapen-zatiari hasiera emateko formula**)

Atal bakarra.- (**Atal bakoitzaren aurrean, dagokion zenbakia eta atala hitza idazten dira, eta atal bat baino ez badago Atal bakarra**) Ondoren zerrendatutako pertsonak Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko bokal izendatzea:...

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkariaren izendapena, Kultura sailburuak Mankomunitateko organo erabakitzaileak proposatutako ordezkariaren berri jaso ondoren egingo da. (**Gehigarriko xedapenak, beti ere azken xedapenen aurretik**)

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (**Aldizkari ofizialaren izena letra larriz**) argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko uztailaren 16an. (**Euskaltzaindiaren ereduak datak idazteko**)

José Antonio Ardanza Garro
Lehendakaria

M.ª Carmen Garmendia Lasa
Kultura sailburua

EUSKALTZAINDIA

1.-c 2.-b 3.-a 4.-a 5.-c 6.-b 7.-a 8.-c 9.-c 10.-b 11.-b 12.-c 13.-b

GRAMATIKA

1 Ariketa

- Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia arautzen duena.// Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia arautzeko.
- Obabako alkateak ordenantza bat atera du txakurrak kalean aske ibiltzea debekatzen duena.
- Obabako alkateak ordenantza bat atera du dioena, txakurrek kaka eta txiza eginez gero kalean, jabeek garbitu beharra dutela. // Obabako alkateak ordenantza bat atera du, txakurrek kaka eta txiza eginez gero kalean, jabeek garbitu beharra dutela dioena.
- Obabako alkateak ordenantza bat atera du uraren prezioa arautzen duena.// Obabako alkateak ordenantza bat atera du uraren prezioa arautzeko.

2 Ariketa

- Sailburu bat dugu bizikletan etortzen dena lanera.
- Obabako zinegotzi bat dago ehiztari amorratua.// Obabako zinegotzi bat dago ehiztari amorratua dena.
- Obabako Udalak eraikin bat dauka 1200. urtean eraiki zena.// Obabako Udalak eraikin bat dauka 1200. urtean eraikia.
- Lehendakaria pertsona bat da familiarekin paseatzea gustatzen zaiona.// Lehendakariari familiarekin paseatzea gustatzen zaio.
- Obabako lurperatzailea funtzionario bat da gogoak ematen dionean oporrak hartzen dituena.// Obabako lurperatzailea funtzionario bat da oporrak hartzen dituena gogoak ematen dionean.